

LABURPENA

I. NAZIOARTEKO

Munduko ekonomiak 2017 urtea balantze positibo batekin amaitu du. Balantze hori hala ekonomia aurreratuen nola garatzen ari diren ekonomien ibilbideari esker gertatu da.

II. ESPAINIARRA

Ekonomia espainiarrak 2017an izan duen %3,1eko hazkuntzak nabarmendu egin da, maila positiboan, Europan. Halaber, enplegua sortu dela eta langabezia gutxitu dela adierazten du.

III. EAE-KOAK

2017aren laugarren hiruhilekoan euskal ekonomiak BPGren hazkuntzaren erritmoari eutsi zion, urte artekoan %3,0koa izan dena, eta ekitaldian %2,9ko aurrerakuntza metatu zuen

IV. BIZKAIKOA

Esportazioek, industriak eta zerbitzuek Lurraldeko ekoizpen-jarduera traktore izan dira.


V. FISKALA

Jarduera ekonomikoaren lehengoratzak eta, horrekin batera, aparteko sarrerek zerga itunduengatik bilketa sustatu dute eta gaintu egin dira ekitaldirako ezarri ziren aurrekontu mailako helburuak.

2017an ekonomia bizkaitarrak dinamismo nabarmena erakusten jarraitu du. Eustaten CTR-ren arabera Barne Produktu Gordina (BPG) %2,8 hazi zen 2017aren azken hiruhilekoan, eta ekitaldian pilatu zuen aurrerakuntza %2,9koa izan zen, 2016an izan zuen %3,4ko igoera baino baxuagoa; dena dela, datu horrekin hedakuntzak lau urte betetzen ditu.

BPGren dinamismoarekin batera enpleguarena aipatu behar da, lansai osoko lanpostu baliokidetan neurtuta hazkuntza %1,9koa eta ekitaldian zehar sortu diren lanpostuak 8.590 izan direlako.

2018ko igurikizunei dagokienez 2014ko lehen hiruhilekoan hasi zen hazkuntzaren bidetik jarraituko dugu. Hori gorabehera, azken hiru urteetan izan dugun ibilbidearekiko desazelerazio txikia gertatzea itxaroten da.



Eusko Jurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin dituen azken proiektzioen arabera (horietan ezarri da EAEn BPGren hazkuntza %2,5koa izango dela) zentzuzkoa ematen du pentsatzeak 2018an Bizkaiko BPG EAEn izango duen aurrerakuntza horretatik hurbil kokatuko dela.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hazkuntza global sendoa 2017an. Munduko ekonomiaren hobekuntza finkatu egin zen 2017an, eta emaitza positiboak egon ziren arlo guztietan; joera hurrengo hiruhilekoetan erritmoa mantentzearena da.

Politika ekonomikoak, batez ere ekonomia garatuei dagokienez, azkenean aldeko eragina izan du ekonomian, hala itxaropenak hobetzearen ondorioz, inbertsioa lehengoratu egin delako, nola ekonomia aurreratuetan eta garatzen ari direnetan kontsumo pribatuak gora egin duelako. Halaber, mundu mailako merkataritza hobetu egin da eta mundu mailako ekoizkortasunaren lehengoratzean laguntzen du.

Hazkuntza handiagoa eta eskaeraren gehikuntza bizi duen giro honekin batera egunera arte inflazio moderatua gertatu da, banku zentral nagusien neurri hedakorrak eta ekonomia garatueto aisi-ahalaren apurka-apurkako murrizketa gorabehera.

Dena dela, hazkuntza handiagoak eta petrolioaren prezioaren igoerak inflazio moderatua eragin behar zuten, ekonomia garatuetoan banku zentralen monetaren normalizazioa erraztuz; aldi berean garapen fasean dauden ekonomia askoren kasuan hazkuntza laguntzeko moneta-politika erabiltzen jarraitzeko aukerak dituzte.

Hasierako behin-behineko aurreikuspenen arabera, munduko hazkuntza %3,7ra iritsi zen 2017an, 2016ko %3,2koa baino altuagoa; gehikuntza hori handiena da 2011tik egunera arte.

Hazkuntzaren eboluzioa arlo ekonomikoen arabera.

EE.BB.: urtean zehar lehengoratzea finkatu da, eta hazkuntza tasak hasieran uste zirenak baino altuagoak izan dira; halaber, hobekuntzak gertatu dira lan-merkatuan. Trumpen zerga-erreforma, azkenean, onetsi egin zen eta inguruabar horrek sendotu egin dezake lehengoratzea. Halaber, FED-en egin diren izendapenen arabera moneta-politika kontinuitista izango da eta horrek isla eduki beharko luke politika horren normalizazio oso gradualean.

Bureau of Economic Analysis erakundearen arabera Estatu Batuetako ekonomia hiruhileko artekoan %0,6 hazi zen laugarren hiruhilekoan (%2,5 urte artekoan); beraz, usteko gehikuntza %2,3 ingurukoa izango da, hau da, hasieran aurreikusi zena eta 2016ko %1,5ekotik gora.

Lan-merkatuan emaitzek onak izaten jarraitu dute eta datuak erabateko enplegutik oso hurbil daude. Lana duen biztanleria %1,2 hazi da 2017ko laugarren hiruhilekoan, eta aurrerakuntza urtean zehar %1,3koa izan da. Langabezia tasa, biztanleria aktiboaren portzentajea, %4,1koa izan zen urtearen azken hiruhilekoan, eta %4,4koa 2017an.

Japonia: moteldu egin da ekoizpen-jarduera. Barne Produktu Gordina (BPG) 2017ko laugarren hiruhilekoan %0,1 hazi zen hiruhileko artekoan, hau da, tasarik baxuena azken urteetan. Urte arteko terminoetan zenbatetsi den aurrerakuntza %1,6koa izan da, hirugarren hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Hori gorabehera urte osorako zenbatetsi den hazkuntza %1,6koa da, 2016ko %0,9koa baino altuagoa.


Txina: desazelerazioa uste zena baino moderatuagoa izan da. Txinako agintariek onetsi zituzten neurriek ekonomia egonkortzea lortu dute. Aldi berean egiturazko erreforma batzuk jarri

dira abian eta gehiago desoreken kontrolean eta gutxiago hazkuntzaren helburuak betetzean finkatu zen estrategia ekonomikoa onetsi da.

2017rako %6,8ko hazkuntza zenbatetsi da, 2016an egon zen %6,7a eta aurrez egindako aurreikuspena baino altuagoa; hori horrela gertatu da kontsumoaren eta inbertsioaren egonkortasunagatik, hain zuzen ere uztez esportazio garbier kontribuzio positiboarekin konpentsatu dena. 2018 eta 2019rako hazkuntzaren moderazioa egotea itxaroten da, hurrenez hurren %6,6 eta %6,4ra artekoa.

Hazkuntza altua garapen bidean dauden ekonomia askotan. Garapen bidean dauden ekonomia garrantzitsuenetako batzuetan aurrerakuntza oso adierazgarriak ari dira gertatzen, eta horien sustatzaileak dira finantzaketa eskuragarria eta merkea, munduko hazkuntzarena azkartze sinkronizatua eta lehengaien arloko aldeko zikloa. Garapen bidean dauden asiar handiei dagokienez, esan behar da dinamikoenak direla eta, ordea, beste batzuen kasuan, adibidez Mexiko edo Brasil, bilakaera hori eragotzita dutela erakunde-jatorriko arazoengatik.

Europa: Ekonomia aurreratuen barruan euroaldea azpimarratu behar da; alde horretan uste zena baino hazkuntza handiagoa erregistratu da; ekonomia horrek laguntza moduan inguru globalaren hobekuntza izan du, eta baita politikaren arloko ziurgabetasun txikiagoaren abantailak igartzen dituen barruko eskaera indartsuagoa ere.



Euroaldeko jardura finkatu egin da 2017an eta hiruhileroko hazkuntza %0,6 ingurukoa izan da eta %2,5ekoa 2017an, erritmorik azkarrena 2007tik eta 2016an egon zen %1,8tik gorakoa. Hazkuntza hori orekatuagoa da osagaien arabera eta orokorra da herri guztietan. Inflazioa da gaur egungo abagunearen gunerik ahulena, EBZren helburua baino baxuago mantentzen delako.

Barruko eskaeraren indarrari eta esportazio garbier ekarpen positiboari esker hazi egin da aldeko BPG. Hurrengo hiruhilekoei dagokienez uste da euroaldean barruko eskaeraren euskarri nagusi moduan aurrerantzean ere barruko eskaera mantenduko dela, zati baten


Abagune Ekonomiko eta Fiskala

kredituen arloan aldekoak diren baldintza batzuk laguntzen jarraituko delako, nahiz eta kanpoko eskaerak protagonismoa irabazten jarraitu.

Enplegua hazi egin da euroalde osoan, eta aurrerakuntza garrantzitsuak gertatu dira lana duen biztanleriari dagokionez, eta lehenengo eta behin Portugalen, Espainian eta Irlandan enpleguak izan duen hazkuntza azpimarratu behar da. Inguruabar horren aurrean gogorarazi behar da aurrerakuntza txikiagoa izan dela Alemania eta Frantzian, eta murriztu egin dela Italian. Okupazioaren hobekuntzak, apurka-apurka, isladatu du soldaten gehikuntzan.

Alemania: Azken adierazleek baieztatu egiten dute jarraitu egiten dutela hazkuntza sendoak eta garapen ekonomikoak. Ildo horretatik hasierako zenbatespenen arabera ekonomia alemanaren BPG %0,6 hazi da hiru hilabete artekoan, eta %2,9 urte artekoan 2017ko laugarren hiru hilabete artekoan; beraz, gehikuntza metatua ekitaldirako %2,5ekoa izango litzateke, 2016ko %1,9tik gora.

4



Frantzia: bere BPG %0,6 hazi zen hiru hilabete artekoan 2017ko laugarren hiru hilabete artekoan; emaitza hori gertatu da etxeetan hazi egin direlako kontsumoko gastuak eta kapital finakoaren eraketa gordina eta, ordea, kanpoko eskaerak erritmoa galtzen zuen neurrian. 2017 urte osorako BPGren %1,9ko hazkuntza kalkulatu da, altuena 2012tik, baina EBn egongo dena baino baxuagoa (%2,5).

Erresuma Batua: ekonomia britainiarra %1,8 hazi zen 2017an, 2016an baino hamarren bat gutxiago; daturik txarrena da 2013tik. Industriaren eta eraikuntzaren eboluzioaren hobekuntza gorabehera jardueraren desazelerazio orokorraren atzean zerbitzuen sektorearen indarraren galera eta lehen sektorearen kontratazioa daude.

Prezioen eboluzioa

Munduko inflazioak gora egin zuen azaroan eta moteldu egin zen abenduan.

EE.BB.etan kontsumoko prezioen indizea (KPI) %2,1ekoa izan zen 2017ko abenduan; hazkuntza hori nabarmena izan zen 2015eko %0,1ekoarekin eta 2016ko %1,3koarekin alderatuta.



Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) barruko herrietan 2017 urteko inflazioa %2,3koa izan zen, 2016ko %1,1etik gorakoa.

Eurostaten arabera euroaren aldearen Kontsumoko Prezio Harmonizatuen Indizea (KPHI) %1,4koa izan zen 2017an. Beste alde batetik, azpiko KPHI %0,9ra iritsi zen urte horretan.

Finantza-merkatuak

Hala Fed nola EBZk jarduera ekonomikoari buruzko optimismo seinaleak igortzen jarraitzen dute.

Banku zentraleri dagokienez ez da sorpresarik egon. Hori bai, hazkuntza sendoaren abaguneak gero eta argiago bermatzen du moneta-politikaren normalizazioa. Izan ere, optimismo handiagoa, aldi berean, banku zentralen banku nagusien prebisioren gorako berrikuspenean gauzatu da, besteak beste Estatu Batuetako Fed edo EBZ, eta aukera eman du moneta-pizgarriak kentzeko oinarri osagarriak hartzeko.

Dudaz beteta etorri zen 2016 urtearen ostean (orduan Fed-ek behin baino ez zituen igo interes-tasak), 2017an hirutan igo zituen, eta argi utzi zuen eta errepikatu zuen 2018an zehar beste hirutan egingo zuela.

Europako Banku Zentralari (EBZ) dagokionez, ez ditu interesak aldatzen 2016ko martxotik; dena dela, ez du moneta-politika baztertu. Azken urte hauetan protagonismorik gehien irabazi duen bitartekoa aktiboen erosketaren programa (QE) izan da; programa horren hala iraupena nola tamaina aldatzen joan dira.

Hau guztia gorabehera EBZk erronka handi batekin ekiten dio 2018ari: aktiboen erosketaren programaren kalibrazio berria doitzea –amaiera data definitzea- eta erosoegia zen moneta-politikatik ateratzeko hurrengo fasea komunikatzen hastea –interes-tasen igoerak ordutan hasiko baitira- eta, hori guztia, finantza-baldintzetan tentsiorik eragin gabe egitea lortzea.

Bete banku zentral batzuk, adibidez Ingalaterrako bankua edo Kanadako Bankua, urratsak ematen ari dira noranzko berean eta Japoniako Bankuak, bere politika aldatu ez arren, aldi berean aktiboen erosketen erritmoa moteldu du. Azken finean finantza merkatuek “normalagoa” den moneta inguru baten arabera egokitu beharko dute: likidezia ez da hain handia izango eta finantza-baldintzak ez dira hain erosoak gertatuko.

Epe laburreko aurreikuspenak

Mundu mailako jarduera ekonomikoak indartzen jarraitzen du eta optimismoz beteta ekiten dio 2018ari.

2016an hasi zen gorakada ziklikoak berriz ere indarrak jasoko ditu 2018an eta nazioarte mailako erakunde nagusienek gorantz begira berrikusi dituzte mundu mailako euren hazkuntza aurreikuspenak 2018 eta 2019rako. Berrikuspen horiek 2017ko ibilbide positiboa eta Estatu Batuetako zerga-politikan ezarri diren aldaketan eraginak islatzen dituzte.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) adierazi duenaren arabera munduko hazkuntza 2018an eta 2019an %3,9 ingurukoa izango da, hau da, 2017rako zenbatetsi zen %3,7a baino altuagoa.

Pronostiko horren oinarria aldekoak diren mundu mailako baldintza finantzarioek eta konfiantza-maila sendoak eta, batez ere, inbertsioak, eskaeraren oraintsuko azelerazioa mantentzen lagunduko dutela da, eragin handia izango dutelako hazkuntzaren gainean eta esportazioen arloan bolumena handia delako.

Ekonomia aurreratuetan uste da aurrerakuntza %2,3ra iritsiko dela 2018an, eta %2,2ra 2019an, beti ere alde batetik EE.BB.en eta, bestetik, euroaren aldea eta Japonia arteko diferentziak ahaztu gabe. Horrela EE.BB.en kasuan usteen arabera BPG %2,7 eta %2,5 haziko da, eta euroaren aldean moderatuagoa izango da aurrerakuntza, hurrenez hurren %2,2 eta %2,0koa, eta uste da Japonian gutxiago haziko dela (%1,2 eta %0,9).

Azkenik, garapen bidean dauden ekonomiak dira, 2018an %4,9 eta 2019an %5,0 hazita, hazkuntza mundiala altxatzen dutenak.

ESPAINIAKO EGOERA

6

Aurrera jarraitu zuen hazkundeak 2017ko hiruhilekoan. EINren Hiruhilekoen Kontabilitate Nazionalaren arabera, Espainiako ekonomiaren BPGdak, bolumen kateatuaren kopuruetan neurtuta eta 2010ekoa oinarri hartuta, hiruhileko arteko %0,7ko hazkundea izan zuen 2017ko laugarren hiruhilekoan, hots, berriz ere apaldu zen hazkundea aurreko hiruhilekoen aldean, 2. hiruhilekoan urteko gehieneko hazkundea izan ondoren (%0,9).

Urte arteko kopuruetan, %3,1ekoa da tasa, aurrekoaren antzekoa, eta hamaika hiruhileko jarraian metatu ditu %3,0tik gorako hazkundeekin. Azken finean, Espainiako ekonomia %3,1 hazi zen 2017 urtean.

Etxeko eskaria da hazkundearen eragile nagusia epe laburrean. Kanpoko eskari garbiak ia ez du ekarpenik aurrerapen horretan, esportazioetan susperraldia gertatu arren.

Laugarren hiruhilekoan Europar hazkundeak izan ondoren, bai Europar Batasunean (28ko EB), bai Eurogunean (19ko EBE), hiruhileko arteko %0,6 izan zen, kasu bietan aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Urte osoan, BPGdaren aurrerapena %2,5ekoa izan zen kasu bietan.


Eskari nazionala

Eskari nazionala izan zen BPGdaren eragile nagusia laugarren hiruhilekoan. Gastuaren ikuspegitik, urria eta abendua bitartean, eskari nazionalak ekarpen positiboa izan zuen (3,2 puntu eta 3,0 aurreko hiruhilekoan) eta negatiboa kanpokoak (-0,1 puntu eta 0,1).

Kontsumoko gastuaren hazkundeak handiagoa izan zen hirugarren hiruhilekoan baino, urte arteko %2,5 eta %2,1. Kapitalaren eraketa gordin finkoak antzeko hazkundeak izan zuen, urte arteko %5,6.

Familien azken kontsumoko gastuak urte arteko %2,5eko hazkundera izan zuen, 3. hiruhilekoan izandakoa baino hamarren bat gehiago, hura osatzen duten ondasun eta zerbitzu moten jokabidearen ondorioz. Administrazio publikoetako azken kontsumoko gastuan, urte arteko %2,4ko izan da, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gehiago (%1,4).

Kapitalaren eraketa gordin finakoak urte arteko %5,6ko igoera du, aurreko hiruhilekoaren antzera. Aktibo moten arabera, materialek %6,0 egin dute gora, aurreko hiruhilekoan baino 3 hamarren gehiago. Jabetza intelektualetako inbertsioa, berriz, %3,3 hazi da, aurreko hiruhilekoan baino 1,7 puntu gutxiago.



Eraikuntzako inbertsioaren urte arteko aldakuntzan, hiru hamarren gutxiago izan dira, %5,1etik %4,8ra igaro baita, etxebizitzako inbertsioaren eta ingeniarietza zibil eta beste eraikuntza batzuen igoeragatik.

Halaber, ekipamendu-ondasunetako inbertsioan, urte arteko %7,9ko igoera izan da, aurreko hiruhilekoan %6,8 izan ondoren. Aktibo horien baterako bilakaera gehi landutako aktiboak zenbatuta, %7,7 da orotara, aurreko hiruhilekoan baino %6,6 gehiago.

Kanpoko eskaria


2017ko laugarren hiruhilekoan, kanpoko sektoreak -0,1 puntuko ekarpena egin zion BPGdaren urte arteko hazkunderari kopuru garbietan, aurrekoan baino bi hamarren gutxiago.

HKNren arabera, 2017ko urria eta abendua bitartean, hazkunde txikiagoa izan zuten ondasunen esportazioek, 1,2 puntu, hain zuzen: %5,6tik %4,4ra. Ondasunei dagokienez, lau hamarreneko jaitziera ageri da aldakuntza-tasan, %5,7tik %5,3ra. Turismoak ez diren zerbitzuen esportazioak %1,0 hazi ziren, aurreko hiruhilekoan baino 1,5 puntu gutxiago.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Azkenik, lurralde ekonomikoko ez-egoiliarren gastuak nabarmen egin zuen behera, %10,1etik %4,2ra igaro baita hazkundera, 5,9 puntu gutxiago.

Azkenik, ondasunen eta zerbitzuen inportazioetan, 7 hamarren gutxiago hazi ziren, %5,9tik %5,2ra. Ondasunenak, berriz, %6,2, aurreko hiruhilekoan baino 3 hamarren gutxiago (%6,5). Bestalde, turismokoak ez diren zerbitzuen inportazioetan, -%0,7ko jaitsiera izan zen, aurreko hiruhilekoan izandako %0,9koa baino 1,6 puntu gutxiago. Azkenik, munduko gainerako herrialdeetako egoiliarren gastuak 3,7 puntu txikiagoko hazkundera izan zuen, %11,2tik %7,5era.



8

Esportazioetan beste marka bat lortu da. Merkataritzaren Estatuko Idazkaritzaren arabera, Espainiako esportazioetan 177.126 milioi euro bildu ziren 2017an. Beraz, inoizko kopururik handiena, urte arteko %8,9ko hazkundera, 2016ko %1,7koaren gainetik eta handiena 2012. urtetik. Esportazioetan hazkundera gertatu zen energiako hazkundera nabarmenagatik (%47,2) nahiz energiakoak ez direnengatik (%6,8).

EBrako energiakoak ez diren esportazioek %6,2 egin zuten gora 2016an %5,1 hazi ondoren, eta munduko gainerako herrialdeetarakoek %7,9 egin zuten gora, 2016ko -%5,1eko jaitsiera atzean utzita, goranzko herrialde nagusietako zenbaiten abagune onari esker. Sektoreka, nabarmentzekoak dira hauexetako hazkunderak: ekipamendu-ondasunak (%9,2), janariak, edariak eta tabakoa (%6,3), lehengaiak (%27,0), erdi manufakturak (%8,7) eta kontsumo iraunkorra (%2,6).

Guztizko inportazioan, orotara, 301.870 milioi euro izan ziren 2017an, %10,5eko igoera, 2016ko -%0,4ko jaitsieraren ondoren, energiakoetan %36,4ko hazkundera handiaren eta energiakoak ez direnek %7,3 gora egin izanaren ondorioz.

Esportazioetan bezala, inportazioek gora egin zuten sektore gehienetan; ekipamendu-ondasunak (%7,8), automobila (%4,8), kontsumoko manufakturak (%4,3), edariak eta tabakoa (%7,6) eta kontsumo iraunkorreko ondasunak (%4,2).


Merkataritzako saldoak 24.744,3 milioi euroko defizita izan zuen, 2016koa baino %31,9 handiagoa (18.753,9 milioi euroko defizita behin-behineko datuekin).

Azkenik, 2017an eta bolumenean, esportazioek urte arteko %8,2ko igoera izan zuten, zeren eta aleko balioko indizeen ziozko gutxi gorabeherako prezioak %0,7 igo baitziren, eta inportazioetan urte arteko %5,5eko igoera izan zen, prezioek %4,7 egin baitzuten gora.

Ekoizpena

Sektore guztien ekarpen positiboa. Eskaintzaren aldetik eta maila agregatuan, Industria eta Eraikuntza adarrek 2017rako 3. hiruhilekorako zenbatetsitakoak baino hazkunde handiagoak zituzten. Bestalde, lehen sektoreko adarretan, hazkunde txikiagoa izan zen. Zerbitzuetan, berriz, antzeko tasa dago.

Industriaren balio erantsi gordinak (BEG) urte arteko %4,6ko igoera izan zuen, urteko lehen hiruhilekoan izandako %3,0ko, %3,4ko eta %3,9ko hazkundeak gaindituz, manufaktura-industria oinarri hartuta. Izan ere, %4,7raino igo zen, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago.



9

Eraikuntzan, BEGaren igoera areagotu egin zen %5,4raino, aurreko hiruhilekoan %4,9 izan ondoren, eta ia bikoiztu egin zen orain dela urtebeteko %2,8.

Bestalde, Zerbitzuen adarrak urte arteko %2,5eko aurrerapen erritmoari eutsi zion, aurreko hiruhilekoan bezala, baina nolabaiteko motelaldia ageri da urtebete lehenagoaren aldean, %2,8koa hain zuzen.

Azkenik, lehen sektoreko BEGak %2,0ko igoera izan zuen, aurreko hiruhilekoan %4,2koa izan ondoren.

Lan-merkatua

Enpleguak hazten jarraitzen du, erritmo txikiagoan bada ere. HKNren arabera, Espainiako ekonomiaren lanaldi osoko lanpostuak 18.078.300 izan ziren, hots, hiruhileko arteko %0,5eko aurrerapenarekin, baina hirugarren hiruhilekoan izandako %0,8koa baino txikiagoa.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Urte arteko kopuruetan, %2,9ko igoera da, aurreko bi epealdietakoaren antzekoa, hots, 505.000 lanposturen hazkunde garbia urtebetean.

Industrian nahiz Nekazaritzan igoera txikiagoak izan ziren aurreko hiruhilekoaren aldean. Nekazaritzan %2,0 (aurrekoan %3,4) eta Industrian %3,2 (aurrekoan %3,3). Eraikuntzan, aldiz, 1,9 puntutan handitu zen urteko tasa, %6,6raino. Azkenik, Zerbitzuetan berdindu egin zen hirugarren hiruhilekoan izandako %2,6ko hazkundera.

BPGdaren eta enpleguaren hazkundera kontuan izanik, lanpostuko itxurazko produktibitateak hazteari eusten dio, %0,2ko gehikuntzarekin.


BAIren datuek erakusten dutenez, indarra galdu zuen laugarren hiruhilekoan. Hala, 2017ko 4. hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren zenbatespenen arabera, 22.765.000 biztanle aktibo zeuden, hiruhileko arteko -%0,1eko igoera, baina urte arteko kopuruetan %0,1eko igoera txikia dakar eta 19.100 lagun gehiago.

Landunak 18.998.400 izan ziren, urte arteko %2,6ko hazkundera (%2,8 aurreko hiruhilekoan), baina hiruhileko arteko -%0,3 jaitsita. Langabeen kopurua, berriz, 3.766.700 lagun izateraino jaitsi zen, 2008tik izandako kopururik txikiena, eta langabezia-tasa %16,5ean kokatu da, orain urtebeteko %18,6tik urruti.

Lan-merkatuak susperraldiari eutsi zion 2017an, laugarren hiruhilekoan hazkundera moteldu arren. BAIren arabera, -%0,4 egin zuen behera biztanleria aktiboak 2017an, eta 18.824.800 landun zeuden, %2,6 hazita (%2,7 2016an). Hala, %62,1eraino igo da okupazio-tasa, oraindik oso urruti krisi aurreko datuetatik.

Langabeen kopurua 4 milioitik jaitsi zen, 3.916.300raino, -%12,6ko jaitsiera, laugarren urtez jarraian behera eginda. Beraz, langabezia-tasa %17,2 da (%19,0 emakumezkoetan eta %15,7 gizonezkoetan), 2016ko %19,6tik urruti (%19,0 emakumezkoetan eta %15,7 gizonezkoetan).

10



Gorantz jarraitzen du Gizarte Segurantzako afiliazioak, 18.325.800 afiliatoraino laugarren hiruhilekoan, urte arteko %3,5eko igoera izanda, aurreko hiruhilekoaren antzekoa. Urteko

batez bestekoa 18.128.500 afiliazio dira, eta urte arteko %3,5eko hazkundera izan da, hots, susperraldi txikia 2016ko %2,9ko hazkunderaren aldean.


Erregistraturiko langabeak beherantz jarraitzen du. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren arabera, erregistraturiko langabeziak beherantz jarraitu zuen 4. hiruherenekoan, -%8,0, 2017ko 1. hiruherenekoetako -%9,6, -%10,9 eta -%8,8koa baino pixka bat txikiagoa. Langabeen urteko batez bestekoa 3.507.700 izan zen, -%9,3ko jaitsierarekin (2016ko -%8,6koa baino handiagoa), eta 4 urtez jarraian egin du behera erregistraturiko langabeziak.

Prezioak, soldatak

EINren arabera, prezio korranteetako BPGdak urte arteko %4,3ko hazkundera izan zuen 2017ko laugarren hiruherenekoan, aurrekoan baino 2 hamarren gehiago (%4,1), eta BPGdak bolumenen izandako bilakaerarekin batera, ekonomiaren deflatore inplizitua %1,2 da, uztaila eta iraila bitartean izandakoa baino 2 hamarren handiagoa.

EINren arabera, Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) %1,1 egin zuen gora 2017ko abenduan, azaroan baino 6 hamarren gutxiago (%1,7). Bilakaera hori gertatu da, energiako produktuen prezioen motelaldiagatik eta, neurri txikiagoan, landu gabeko elikagaien eta zerbitzuen ondorioz. Abenduko KPI ez da aldatu azarokoaren aldean, 2016ko hil berean %0,6 hazi ondoren.

Ezkutuko inflazioak (KPI energiako produktuak eta landu gabeko elikagaiak kenduta) %0,8an eutsi zioen abenduan.



Bestalde, Eurostatek Eurogune osorako abenduan aurreraturiko tasa %1,4 da, Espainiakoa baino 2 hamarren handiagoa, urteko gainerako hiruherenekoetan ez bezala.

Epe laburrerako eta luzerako aurreikuspena

Espainiako ekonomiaren gaineko aurreikuspenak onak dira. Espainiako ekonomiarako hiru urte on izan ondoren -%3,0tik gorako tasak izan ditu-, 2018rako motelaldi txikia aurreikusten da

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

hazkundean, baina ekonomia aurreratuenen handienetakoa izaten jarraituko du, nazioko eta nazioarteko erakunde nagusiek iragarri dutenez.

Hala, Europako Batzordeak, 2018ko Negurako Aurreikuspenetan, hamarren bat zuzendu zuen gorantz Espainiako ekonomiaren urte horretarako BPGd errealaren hazkundearen aurreikuspena, %2,6raino, jarduera ekonomikoak 2017ko 2. zatian izandako bilakaeragatik, uste zena baino hobea izan baita. 2019rako, BPGd errealaren aldakuntzak %2,1ean eusten dio.

Eskari nazionaleko osagaiei dagokionez, kontsumo pribatua izango da etorkizunean ere hazkundearen eragile nagusia, baina indarra galtzea espero da lanpostuak sortzeko erritmoa moteldu ahala eta finantza-baldintza onak eta petrolioaren prezio baxuak desagertu ahala, besteak beste.

Kanpoko sektorearen ekarpenari dagokionez, positiboa izaten jarraitzea espero da, baina beheranzkoa izango da 2018an eta 2019an.


Prezioei dagokionez, urte arteko batez besteko %1,6ko igoera aurreikuspen da 2018rako KPI bateratuan (KPIB), urteko lehen zatian petrolioaren prezioen igoeragatik, baina indarra galduz joango da urtearen barruan. 2019rako, KPIBk %1,5eko jaitsiera izatea aurreikusten da.

EAE-KO ABAGUNEA

12

EAEko ekoizpen-jarduerak goranzko joerari eusten dio. 2017ko azken hiruhilekoan, euskal ekonomiak indartsu jarraitu zuen hazten, eta aurreko hiruhilekoaren intentsitateari eutsi zion. Beraz, abiapuntu ona da 2018rako.

Eustaten 2017ko laugarren hiruhilekoko Hiruhilekoen Kontuen arabera, EAEko BPGdak aurrera egin zuen, sasoiako eta egutegiko efektuak deskontaturik, hiruhileko arteko %0,7 hain zuzen, hirugarren hiruhilekoaren antzeko tasa. 2016ko laugarren hiruhilekoaren aldean, %3,0ko gehikuntza izan da.



2017an, euskal ekonomiaren bolumenak %2,9 egin zuen gora, 2016an baino 2 hamarren gutxiago, eta lau ekitaldi metatu ditu aurrerapenetan. Garrantzizkoa da esatea 2017ko BPGdak 2007ko krisiaren aurretik zeuden mailak gainditu dituela, bolumenean nahiz prezio korrontteetan.

Euskal jardueraren bilakaera onak lan-merkatuan izan du isla; izan ere, enpleguak gora egin du eta erregistraturiko langabeziak, berriz, behera.

Lurraldez lurralde, 2017ko azken hiruhilekoan, Arabaren eta Gipuzkoaren hazkundea antzekoa da, urte arteko kopuruetan nahiz hiruhileko arteko kopuruetan, %3,2 eta %0,8 hurrenez hurren. Bizkaiko BPGdaren hazkundea txikiagoa izan da, %2,8 urteko tasan eta %0,6 hiruhileko artekoan. Urte osoan, Arabak izan du emaitzarik hoberena, %3,0 hazita, 2016an bezala. Bizkaian, aldiz, 5 hamarren galdu ditu aurreko urtearen aldean, %2,9arekin, eta Gipuzkoak berdinean eusten dio %2,8arekin.

Barneko eskaria

Eskariaren aldetik, barneko eskari sendoari eutsi izana da garrantzitsuena, BPGdaren hazkundearen egiazko eragilea delako, non bi osagai nagusiek, azken kontsumoko gastuak eta kapitalaren eraketa gordinak, gorako erritmoari eutsi zioten azken hiruhilekoan.

2017ko azken hiruhilekoan, barneko eskariak urte arteko %3,1eko igoera izan zuen, udan bezala, eta urteko lehenbiziko bi hiruhilekoetako %2,9aren eta %2,7aren gainetik. 2017an, %3,0 egin zuen gora barneko kontsumoak, 2016an legez.

Gora egin zuten barneko eskariaren bi osagaiek, azken kontsumoko gastuak %2,8 eta kapitalaren eraketa gordinak %3,8. Aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago izan bazuten ere kasu bietan, goranzko joerari eusten diote. Horrenbestez, kapitalaren eraketa gordinak ditu emaitzarik hoberenak 2016ko ekitaldiaren aldean, %3,5eko hazkundea izanik %3,1aren aldean. Azken kontsumoko gastuan, berriz, erritmoa moteldu da nolabait, %2,8 hazita, iaz baino hamarren 1 gutxiago.

Familien azken kontsumoko gastuan (kontsumo pribatuan), urtearen amaieran erritmoa pixka bat moteldu bazen ere, bilakaera positiboan jarraitzen du, %2,8 hazita (hirugarren hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago). Hiruhileko arteko tasa %0,1 izan zen, hori ere aurreko hiruhilekoan izandako %0,3 baino bi hamarren gutxiago.

Goranzko bideari eusten dio herri administrazioetako azken kontsumoko gastuak; urte arteko tasan bi hamarreneko igoera izan du, 3. hiruhilekoan izandako datua gaindituta. Hala, %2,7tik %2,9ra igaro da, eta hiruhilekoan %1,2ko gehikuntza izan da, uztailean eta irailean %0,4koa izan ondoren.

Guztiak batera, familien eta herri administrazioen azken kontsumoaren bilakaera dela-eta, azken kontsumoko gastuak urte arteko %2,8ko igoera izan du, azken hiruhilekoan %2,9 eta hiruhileko artean %0,3 hazi ondoren, aurreko aldiko emaitza bertsua.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Bestalde, kapitalaren eraketa gordina (KEG) %3,8 hazi zen 2017ko laugarren hiruhilekoan, hirugarrenean baino hamarren bat gutxiago, 2017. urte osoko joera positiboaren baitan. Hiruhilekoetan, %2,1eko hazkundera izan zen, udan %1,4koa lortu ostean.

Ekipamendu-ondasunen inbertsioek gogor jarraitu zuten azken hiruhilekoan, %4,6 hazita, 3.ean baino hamarren bat gehiago, baina urruti dago apirila eta ekaina bitartean lorturiko gehieneko %5,4tik. Gainerako inbertsioa gehienbat eraikuntzarekin dago lotuta, eta hazkunde txikiagoa izan du, %3,4. Hortaz, hamarren bat galdu du aurreko hiruhilekoaren aldean. Alabaina, urte osoan, eraikuntzarekin loturiko aktiboetako inbertsioaren hazkundeak ia puntu bateko igoera izan zuen 2016ko emaitzarekiko (%2,7 eta %1,8). Ekipamendu-ondasunen KEGak, berriz, puntu erdi baino gehiago galdu du, 2016ko %5,3tik 2017ko %4,7ra.

Kanpoko eskaria

Eustaten HEKek berretsi egiten dute kanpoko sektorearen bilakaera dinamikoa, 2017ko azken hiruhilekoan %4,8 igo baitzen esportazioetan eta inportazioetan, kasu bietan, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gehiago gutxi gorabehera. 2017an antzeko igoera izan zuten, eta, hala, esportazioek %3,0 egin zuten gora (%1,7 2016an) eta inportazioek %3,1 (%1,5 2016an).

Prezio korranteetan, esportazioek %6,9 egin zuten gora eta inportazioek, berriz, %6,1, kasu bietan 2017ko 3. hiruhilekoan %6,2 lortu ondoren. 2017an, handiagoa izan zen esportazioen hazkundera ere, %5,1 (2016an %0,3 izan zen), eta inportazioetan %4,7 (2016an ez zen hazkunderik izan).

Merkataritzaren Estatuko Idazkaritzaren arabera, EAetik Espainiako ekonomiatik kanpora eginiko salmentak, 2017an, 6.145,5 milioi eurokoak izan ziren, urte arteko %11,1eko hazkundera izanda, lehen hiru hiruhilekoetan %13,3, %5,5 eta %12,7 hazi ondoren. Hortaz, %10,5eko hazkunde nabarmena da 2017. urte osoan, 2015eko -%2,4ko eta 2016ko -%1,6ko jaitsieretatik aterata.

Euskal esportazioek, 2017ko urria eta abendua bitartean, hazkundea izan zuten, energia-esportazioen %25,9ko igoeraren ondorioz, baina batez ere energiakoak ez direnen %9,6ko gehikuntzagatik, EBra eginiko bidalketen %9,3ko hazkundeak nahiz munduko gainerako herrialdeetarako esportazioen %10,0ko gehikuntzak bultzatuta.

2017an, energiakoak ez diren salmentek %8,7 egin zuten gora, 2016ko %1,6koaren gaineratik, EBrako bidalketen hazkundeak (%6,7) nahiz munduko gainerako herrialdeetarako esportazioek (%12,6) eraginda.

EAetik Espainiako ekonomiatik kanpora eginiko erosketek, %35,0, %12,9 eta %22,5 gora egin ondoren lehen hiruhilekoetan, urria eta abendua bitartean urte arteko %14,2 egin zuten gora, energiako salmenten %20,3ko igoeren eta energiakoak ez direnen %12,3 hazkundearen ondorioz.

2017an %20,6ko gorakada nabarmena izan zen (-%8,0 2016an) inportazio guztietan, eta energiakoetan igoera ikaragarri handia izan zen, %54,5koa; aurrerapen handia gertatu zen energiakoak ez direnetan ere (%11,5).


Ekoizpena

Gora egin dute sektore guztiek lehen sektoreak izan ezik. Eskaintzaren aldetik, aurrera darrai jardueraren hiru sektore ekonomiko nagusien bilakaera positiboak, eta BPGdaren hazkundearen eragileak izan ziren 2017ko azken hiruhilekoan.

Aurreko hiruhilekoan bezala, Industriak eta Eraikuntzak goranzko joerari eusten diote, baina Zerbitzuetako hazkundera ez da hain handia izan.

Industriak urte arteko %3,7ko hazkundera izan zuen 2017ko laugarren hiruhilekoan, aurreko aldean baino puntu bat gehiago. Gainera, hiruhileko arteko hazkundera %1,7 izan zen. Manufaktura-industriak ere %3,7 egin zuen gora. 2017an, industriaren aurrerapena %2,7 izan zen, 2016an %2,9 izan ondoren.

Kopuru korranteetan, industriako sektoreak urte arteko %5,2ko hazkundera izan du, hots, sektoreko prezioek %1,4 egin dute gora, hirugarren hiruhilekoaren antzera.



15

Eraikuntza aurrera doa. Azken hiruhilekoan, hamarren bateko hazkundera izan zuen sektoreak udako datuen aldean, %3,1, 2. hiruhilekoan izandako geldialdia gaituta. Hiruhilekoak emaitza bikaina eman zuen, %4,5eko hazkundera, urteko lehen hiruhilekoan hazkunde negatiboa izan ondoren (-%2,3) eta gero gorantz egin zuen 2. eta 3.ean (%0,1eko eta %0,9ko hazkundeak, hurrenez hurren). 2017an, %2,5eko hazkundera izan zen, 2016ko %1,8koa gaituta: sektoreak indartsu jarraitzen du. Horrez gain, prezio korranteetan urte arteko hazkundera %3,2 izan zen eta, beraz, sektoreko prezioen igoera %0,5koa izan zela ondoriozta dezakegu.

Zerbitzuen sektoreak gora egin du, baina hazkundera moteldu dela dirudi. Sektoreak gorantz jarraitzen du, baina hazkundera ez da hain handia, hirugarren hiruhilekoan ere ikusi zen bezala. Hala, %2,9ko igoera izan da, aurreko epealdian baino bi hamarren gutxiago. 2017an, hazkunderik handieneko sektorea izan zen, %3,1, 2016an %2,8 izan ondoren.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioen adarrak, hirugarren hiru hilekoaren aldean 7 hamarren galdu arren, gainerako adarrek baino hazkunde handiagoak izaten jarraitzen dute, urte arteko %3,1. Administrazio Publikoarekin, Hezkuntzarekin, Osasunarekin eta Gizarte Zerbitzuekin loturiko jarduerak, berriz, 3 hamarren egin zuten gora, %2,9 hazita. Azkenik, Gainerako Zerbitzuak daude, non lanbide-jarduerak, finantza-jarduerak eta aseguruak biltzen diren, besteak beste: 3 hamarren gutxiago hirugarren hiru hilekoan %3,0 izan ondoren, %2,7 hazita.

Lan-merkatua

BPGdaren hazkundearekin batera, enplegua sortu da sektore nagusietan. HEKen arabera, 2017ko laugarren hiru hilekoan, lanaldi osoko 943.000 lanposturaino igo zen enplegua, 2016ko laugarren hiru hilekoan baino 18.400 gehiago. Hala, urte arteko %2,0ko hazkundera izan zen, aurreko hiru hilekoetan izandakoen antzera.

Enpleguaren bilakaera positiboa izan zen jarduera-adar guztietan, garrantzi txikia duen lehen sektorean izan ezik. Berriz ere zerbitzuetan sortu zen lanpostu gehien, 14.000 inguru 2016ko amaieratik, urte arteko %2,2ko hazkunde-tasarekin, udan baino hamarren bat gutxiago.

Industriak eta Eraikuntzak ere eragina izan zuten enpleguaren sorkuntzan, baina portzentaje txikiagoan eta nolabaiteko motelaldian lehenengoaren kasuan. Hala, industriako enplegua %1,6 hazi zen azken hiru hilekoan, 3.000 lanpostu berri 2016an, eta Eraikuntzan urte arteko %1,6ko hobekuntza izan zen, 1.000 lanpostu berri.


Lan-merkatuaren inkestetan ere ageri da hobekuntza hori EAEn, baita 2017ko azken hiru hilekoan indarra galtzean ere. Hala, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) zenbatespenen arabera, behera egin zuen pixka bat urria eta abendua bitartean lan egiteko prest zeuden euskal biztanleen kopuruak, urte arteko -%0,4ko jaitsiera. Ondorioz, hiru hileko arteko %0,1eko igoera txikia izan zen.

Landunei dagokienez, EINek dio %1,5eko igoera izan dela, ekitaldiko hazkunderik handiena. Langabeen kopuruak 108.300raino egin zuen behera EAEn, hots, orain dela urtebeteko 126.330 langabeen aldean, urte arteko -%14,3ko eta hiru hileko arteko -%8,5eko jaitsierak izan dira.

EAEko langabezia-tasak %10,6raino egin zuen behera laugarren hiru hilekoan, eta jaitsiera handiagoa da emakumeen langabezian, hirugarren hiru hilekoko %12,5etik %10,6ra, gizonena baino: %10,7tik %10,5era egin zuen behera.

Eustaten BJaren arabera, 2017ko laugarren hiru hilekoan, -%0,4 egin zuen behera lan egiteko moduan zeuden euskal herritarren kopuruak, aurreko epealdian baino jaitsiera txikiagoa, bai urte arteko kopuruetan, bai hiru hileko arteko kopuruetan.

Urte arteko %1,4ko igoera izan zen azken epealdian, aurreko hiru hilekoan %0,3tik gora, baina urteko 1. zatian erregistraturiko aurrerapenen azpitik (%1,6 eta %2,2). EAEko biztanle landunak 915.100 ziren 2017ko urria eta abendu bitartean, urtebete lehenago baino 12.400 gehiago, hots, 3 urtez jarraian sortu da enplegua hainbat urtetan jaitsierak izan ondoren.



Langabeen kopurua 113.800raino jaitsi zen, hots, hiruhileko arteko $-4,4\%$ ko jaitsiera eta urte arteko $-12,5\%$ ko jaitsiera. Horrenbestez, langabezia-tasa $11,1\%$ ean kokatu zen, aurreko hiruhilekoan $11,5\%$ koa baino lau hamarren gutxiago eta urtebete lehenagoko $12,6\%$ tik urruti. Langabezia-tasaren jaitsierak batez ere emakumeengan izan zuen eragina; urte arteko kopuruetan behera egin zuen, aurreko hiruhilekoan $12,7\%$ izatetik $11,4\%$ ra. Gizonena, aldiz, igoera txikia izan zuen, $10,4\%$ tik $10,8\%$ ra, hurrenez hurren.

Gora egin zuten EAEko Gizarte Segurantzarako afiliazioek ere 2017an. Hala, $1,6\%$ eta $2,0\%$ ko aurrerapenaren ondotik, hurrenez hurren, lehenbiziko bi hiruhilekoetan, hirugarrenean eta laugarrenean $2,0\%$ eta $2,1\%$ hazi ziren, hots, $1,9\%$ ko batez besteko hazkundea 2017an, 2016an bezalakoa, baina Estatuko $3,5\%$ koa baino txikiagoa; lau urtez gora egin du etengabe.

17

Beherantz jarraitzen du erregistraturiko langabeziak. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak egiaztatu duenez, beherantz jarraitzen du EAEko bulegoetan erregistraturiko langabetuen kopuruak, baina motelaldia ageri da nolabait jaitsiera erritmoan. Hala, urteko lehen hiru epealdietako -10% , $-9,5\%$ eta $-7,6\%$ ko jaitsieren ondotik, urri eta abendu bitartean, berriz ere jaitsi zen 128.600 langabetura, hots, urte arteko $-7,0\%$ ko jaitsiera.

2017ko balantzeak erakusten duenez, batez beste 133.400 lagun daude erregistratuta, $-8,6\%$ ko jaitsiera, 2016ko $-8,8\%$ koa baino pixka bat txikiagoa, baina lau urtez jarraian atzerapenak izan dira.

2018ko urtarrileko datuek berresten dutenez, aurreko epealdien antzeko erritmoan sortzen ari da enplegua. Zehazki, Gizarte Segurantzako afiliazioa $2,0\%$ hazi zen urtarrilean, 18.500 afiliatu gehiago 2017ko epealdi berean baino.

Prezioen deflatoarea eta KPI

HEKen arabera, EAEko prezio korronteen BPGda, 2017ko laugarren hiruhilekoan, 19.290,0 milioi euro izan zen, urtebete lehenago baino 800,0 milioi inguru gehiago (18.488,6), eta urte

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

arteko hazkundera, berriz, %4,3koa. BPGdaren bolumenean %3,0ko igoera zenbatu dela kontuan izanik, prezioen deflatorea %1,3koa izan da.

EAEko Kontsumoko Prezioen Indizeak 2017ko bukaeran urte arteko %1,1eko igoera izan zuen abenduan, Estatuko hazkunderaren ildo beretik. Kopuru horrek lau hamarreneko jaitsiera erakusten du azarokoaren aldean, eta urte osoko tasarik txikiena da, ekitaldia hasi zeneko %3,0koaren oso azpitik. Alabaina, urteko batez besteko inflazioa %2,0an kokatu zen, aurreko lau urteetakoa baino gehiago, eta gainera, EBZaren erreferentzia da.

Epe laburrerako aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzak hazkunderako aurreikuspenak handitu ditu EAERako. Hala, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren azken zenbatespenen arabera, euskal ekonomiaren BPGda, 2018rako, %2,5aren ingurukoa izango da, hots, aurreko aurreikuspenak baino hamarren 1 handiagoa, eta hazkundera etxeko eskarian izango du oinarria orain ere, BPGdari 2,6 puntuko ekarpena eginda.

Familien kontsumoko gastuak nabarmen egingo du gora aurrerantzean ere, hain zuzen aurreikuspen hobeak, enpleguaren gehikuntza eta errenta-efektua oinarri hartuta.

Kapitalaren eraketa gordinak hazten jarraituko du enpresen arloko igurikapen hobeei, finantzen egoera onari eta hazkunde ekonomiko orokorrari esker.

18

Bestalde, kanpoko eskariaren ekarpenak pixka bat negatiboa izaten jarraituko du EAEko BPGdan, baina txikia.

Eskaintzari dagokionez, abenduko aurreikuspenak aurreko epealdietakoen antzekoak izan ziren abenduan, eta aurrerapen orokorrak espero dira sektore nagusietan.


Hazten jarraituko duen industria eta hirugarren sektorea izango dira osagairik dinamikoena BEGari eginiko ekarpenaren kopuruetan. Eraikuntzari dagokionez, hurrengo hiru hileetan sektorearen susperraldia finkatzea espero da.

Lan-merkatuari dagokionez, enpleguaren hazkundera 2018an %1,7 izango da aurreikuspenen arabera, eta langabezia-tasa beherantz ekarriko du %10,6raino.

Azkenik, prezioek igoera apalari eusteko joera izango dute, eta BPGdaren deflatorea %1,7 izango da 2018an zenbatespenen arabera.

BIZKAIKO ABAGUNEA

Bizkaiko ekonomiak hazten jarraitzen du, baina aurreko hiruhilekotan baino astiroago haziz doa. Eustaten Hiruhileroko Kontuen arabera, Lurraldean sortutako balio erantsi gordinaren (BEGd) bolumena %0,6 handitu zen hiruhilekoen artean, 2017ko urritik abendura bitartean, hau da aurreko hiruhilekoan beste. Urtetik urterako hazkundera %2,8koa izan da, urteko apalena, EAEko batez bestekoa (%3,0), Arabako batez bestekoa (%3,2) eta Gipuzkoako batez bestekoa (%3,2) baino txikiagoa.



Era berean, Eustaten arabera, 2017ko laugarren hiruhilekoan, BEGd eguneko prezioetan %4,2 igo da Bizkaian eta zertxobait gehiago Araban (%4,6) eta Gipuzkoan (%4,4). Hortaz, azken hiru hilekoan, prezioen deflatoreak ia-ia %1,3 hazi dira Bizkaian, Araban (%1,4) eta Gipuzkoan (%1,2) izan dituzten balioen artean.

Ekitaldia aintzat hartuta, Bizkaiko BPGd-ren bolumena %2,9 hazi zen Bizkaian, EAEko batez bestekoaren antzera, baina 2016ko ekitaldian baino gutxiago (%3,4). Hala ere, hazkundea izan da laugarren urtez jarraian, eta nabarmendu behar dugu 2015-2017 hirurtekoan ia-ia %3ko hazkundea izan duela batez beste.

Ekoizpena

Bizkaiko industria-sektoreak berreskurapenari eutsi dio, baina badirudi moteltzen ari dela.


Gorabeherak gorabehera, ekoizpen-adierazleek adierazten dute Bizkaiko industria-jarduerak bilakaera positiboa izan duela 2017ko ekitaldian, nahiz eta, azkenaldian, moteldu den. Hala, Eustaten arabera, Industria Ekoizpenaren Indizea (IEI) –urtaroen eta egutegiko ondorioak zuzenduta– %0,4 igo zen urtetik urtera 2017ko urriaren eta abenduaren artean, lehen hiru hilekoetan %5,5, %4,0 eta %3,7 hazi ondoren.

2017 osoan, Bizkaiko IEI %3,4 hazi zen, 2016ko ekitaldian baino askozaz ere gehiago (%0,9), ondoko hauen guztien igoerak bultzatuta: erauzketa-jarduerena (%19,6), manufaktura-industriarena (%3,0) eta energia-ekoizpenarena (%6,7).

Industria-jardueraren gehikuntzak eragina izan du enpleguan eta Gizarte Segurantzako afiliazioetan. Hala, 2017ko laugarren hiruhilekoan, Bizkaiko industrian jardun zuen jendearen GSKo afiliazioak 72.825 izan ziren (hil bakoitzeko azken eguneko batez bestekoa), aurreko urtean (72.136) baino %1,0 gehiago.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Industriako afiliazioek, batez beste, %1,6 egin zuten gora eta, beraz, 2016ko igoyerari eutsi eta azken urteetako beheranzko joera atzean utzi dute, hain zuzen ere, manufaktura-industriaren %1,4ko igoyeraren eta erauzketa- eta energia-jardueretako afiliazioen %3,4ko hazkundearen ondorioz.



20

Lanari buruzko inkestak emaitzak, berriro ere, kontraesankorrak dira sektoreko okupazioari dagokionez. Bada, EINen BAln jasotako datuei jarraiki, 2017ko laugarren hiruhilekoan, batez beste, 87.200 biztanlek lan egin zuten Bizkaiko industrian, hau da, $-\%10,0$ gutxiago aurreko urteko hiruhileko berdinen aldean; aitzitik, Eustatek biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko egiten duen inkestako (BJA) datuen arabera, 91.500 pertsona landun izan ziren eta, beraz, urtetik urterako hazkunde nabarmena gertatu zen, $\%14,4$ koa.

Eraikuntzak goranzko bilakaera izaten segitzen du. SEOPAN elkartearen arabera, 2017ko ekitaldian, lizitazio ofizialaren zenbatekoa 528 milioi eurokoa izan zen Bizkaian, hau da, 2016ko ekitaldiaren aldean (454 milioi eurokoa), $\%16,2$ hazi zen. Hazkunde hori eraikigintzaren emaitza onari esker gertatu da, 179 milioi eurokoa (guztizkoaren $\%33,9$), urtetik urterako hazkundea $\%28,8$ koa izan dela, bai eta obra zibilaren bilakaera onari esker, 349 milioi eurokoa (guztizkoaren $\%66,1$), hazkundea $\%10,7$ koa izan dela.

Azkenik, nabarmendu behar dugu Bizkaian 2017an lizitatu den obraren emaitza ona toki-administrazioaren bultzadari esker gertatu dela, $\%92,1$ areagotu baitzen. Estatuko administrazioaren lizitazioa, berriz, $-\%50,3$ jaitsi zen eta autonomiako lizitazioarena $-\%0,1$.

Eraikuntza-arloko enplegu-adierazleek susperraldia berretsi dute. Bizkaian, 2017ko urritik abendura 29.394 lagun afiliatu ziren eraikuntza-arloan Gizarte Segurantzari; hain zuzen ere, $\%1,8$ areagotu da sektore horretako afiliazioen kopurua urtetik urtera, eta $\%1,1$ hiruhilekotik hiruhilekora. Ekitaldi osoa aintzat harturik, sektoreko afiliazioen batez bestekoa 29.095 izan da. Kopuru horrek badakar $\%1,4$ ko hazkundea urtetik urtera, baina 2009an izan zen kopurutik (44.940) nahikoa urrun dago.

Azken hiruhilekoetako joerari jarraiki, kontsumo-gastuek bilakaera positiboa izan dute urtearen amaieran eta, horren ondorioz, merkataritza-zerbitzuen hornidura apurka-apurka hobetu da. Gainera, finantzen esparrua ere etengabe hobetu denez gero, inbertsio-gastuak

errazago berreskuratu dira eta, era berean, lagungarria izan da enpresentzako zerbitzuen jardueran.

Eustatek emandako Bizkaiko Zerbitzuen Koiuntura Indizearen (ZKI) arabera, handizkako nahiz txikizkako merkataritza, ibilgailuen salmenta eta konponketa eta Beste zerbitzu batzuk izeneko epigrafearen barruan sailkatu diren sektoreak biltzen dituen Zerbitzuen sektoreak handitzen jarraitu du 2017ko azken hiruhilekoan eta %1,7ko hazkunde konstantea izan du, nahiz eta hazkundea moteldu den aurreko hiruhilekoaren aldean (%2,5).

Hiruhilekoan gertatu den hazkundea, %1,2koa (aurreko hiruhilekoan, %3,2koa), Merkataritza sektorearen hazkundearen ondoriozkoa eta Beste zerbitzu batzuk sektorearen gorakadaren ondoriozkoa da. Azkena %2,4 hazi zen, uztailetik irailera igo zena (%1,5) baino gehiago.

Hiruhilekotik hiruhilekorako datuei dagokienez, Zerbitzuen Koiuntura Indizeak %0,6 egin du gora hirugarren hiruhilekoaren aldean, Zerbitzuen sektoreari esker soil-soilik, %1,0 hazi baita. Merkataritza-sektoreak, ordea, -%0,6 egin du behera, beti ere, uneko prezioetan emanda eta urtaroen eragina zuzenduta.

Urtaroen eragina kenduta, hiruhilekotik hiruhilekorako datuei dagokienez, Merkataritza-sektorearen beherakada (-%0,6) ondokoen batura da: ibilgailuen salmenta eta konponketen geraldia (%0,0), aurreko hiruhilekoan %7ko gorakada izan ostean, handizkako merkataritza-sektoreko salmenten beherakada (%0,1) eta txikizkako merkataritza-sektoreko salmenten beherakada (%1,1).

Beste zerbitzu batzuen sektoreari dagokionez, hiruhilekotik hiruhilekorako hazkundea %1,0koa izan da -prezio konstanteetan eta urtaroen eragina zuzenduta- honako alor hauetan salmenta-indizeek gora egin dutelako: ostalaritzan (%1,1), garraioan eta biltegiatzean (%0,0), administrazio-jarduera eta zerbitzu osagarrietan (%0,9) eta jarduera profesional eta zientifikoetan (%4,8); informazioaren eta komunikazioaren sektorean, aldiz, behera egin du (-%0,5).

Azkenik, Zerbitzuen Koiuntura Indizearen arabera, Bizkaiko zerbitzuen sektoreko biztanle landunen indizeak gora egin du 2017ko laugarren hiruhilekoan, %1,5, hain zuzen ere, uztailetik irailera bitarteko aldiaren baino bi hamarren gehiago. Hortaz, indizea hazi egin da jarraian hamabi hiruhilekotan.

2017 osoan, merkatuko zerbitzuek goranzko joera izan dute Bizkaian, merkataritza %1,3 hazi baita eta Beste zerbitzu batzuen sektorea %2,2. Bestalde, biztanle landunen indizea %1,3 hazi da.

Bizkaiko zerbitzuei gagozkiela, Gizarte Segurantzako afiliazioen batez bestekoa 344.878koa izan zen 2017ko azken hiruhilekoan; hiruhilekotik hiruhilekorako hazkundea %3,8koa izan zen eta urtetik urterakoa %2,1ekoa.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

2017ko ekitaldian, Bizkaiko hirugarren sektoreko afiliazioen batez bestekoa 337.681ekoa izan zen, hau da, 2016ko ekitaldiko 331.681eko batez bestekoaren aldean, %1,8ko hazkundea izan zuen urtetik urtera (%1,7koa 2016an) eta, gainera, hazi egin da lau urtez jarraian.

Hirugarren sektoreko jardueri dagokionez, Bizkaian 2017ko ekitaldian urterik urterako goranzko joera izan duten afiliazioak ondokoak izan dira: jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (%2,1), zerbitzu osagarriak (%2,3), informazioa eta komunikazioa (%2,1), administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza (%2,9), arte eta aisialdiko jarduerak (%5,8), merkataritza, ibilgailuen konponketa, garraioa eta ostalaritza (%1,3) eta higiezin-jarduerak (%3,4). Finantza- eta aseguru-jarduerak eta Beste zerbitzu batzuek, berriz, beheranzko bilakaera izan dute, -%3,9koa eta -%0,6koa, hurrenez hurren.

Barne-eskaria

Barne-eskariak Bizkaiko ekoizpen-jarduera bultzatzen jarraitzen du. Aurreko hiruhilekoetan bezala, etxeetako kontsumoak eta enpresen inbertsioek badiraute barne-eskaria sustatzen, enpleguari buruzko datu onak eta finantzaketa-baldintza hobekak direla eta.

Nolanahi ere den, langabezia eta zorpetze-maila oraindik ere handiak dira eta, ondorioz, Bizkaiko familien kontsumoaren berreskurapena ez da hain azkar garatzen ari.

22

Eustatek hiru hilerik behin argitaratzen duen Txikizkako Merkataritzaren Indizearen (TMI) arabera, 2017ko laugarren hiruhilekoan geraldia igarri da Bizkaian, aurreko hiruhilekoen aldean. Hala, uneko prezioetan emandako TMI zuzendua %2,2 hazi zen laugarren hiruhilekoan (%5,6 hirugarren hiruhilekoan), Gipuzkoan (%1,9) eta Araban (%1,3) baino gehiago.


Bolumenari dagokionez, TMIk -%0,2 egin du behera urtetik urtera, eta aurreko hiruhilekoetako goranzko joera eten du. Araban ere -%0,2 egin du behera indizeak eta Gipuzkoan, aldiz, %0,7 egin du gora.

Barne-eskarian berebiziko garrantzia daukan etxebizitzaren transakzioen adierazlea hazi egin zen Bizkaian 2017ko hirugarren hiruhilekoan, %5,3 urtetik urtera (eskuratutako azken datua) eta, hortaz, hamabots hiruhilekoetan hazi da jarraian. Guztira, urteko balioetan adierazita (2016ko irailetik 2017ko irailera arte), Bizkaian 10.732 etxebizitza eskualdatu ziren. Hala, urtetik urterako hazkundea %7,1ekoa (EAEko %9,8koa baino apalagoa, eta Espainiako %15,8koa baino askoz txikiagoa).

Urte historikoa Bizkaiko turismoarentzat. Ostatu-zerbitzuen eskaria izugarri hazi da eta, horren haritik, bisitarien eta ostatu-gauen kopuruak aurreko marka guztiak hautsi ditu.

EINen Ostatuaren Okupazioaren Inkestaren (OOI) zenbatespenen arabera, Bizkaia bisitatu eta bertako hoteletan ostatu hartu zuten bisitarien kopuruak %10,1 egin zuen gora urtetik urterako indizean, urritik abendura bitartean. Kanpoko bisitarien hazkundea %9,7koa izan zen eta estatuko turistena, berriz, %10,3koa.

Bestalde, Eustaten Turismo Establezimendu Hartzaileen Inkestak (TEHI) igoera apalagoa antzeman du Bizkaian izan ziren bidaiariei dagokienez, hain zuzen ere, %5,6ko hazkundera, beste autonomia erkidego batzuetako bisitarien %3,3ko eta atzeritarren %10,4ko igoeren eraginez.



Ostatu-gauei gagozkiela, EINek %5,7ko hazkundera zenbatetsi du urtetik urtera 2017ko azken hiruhilekoan, estatuko bisitariak (%4,2) eta atzerriko bisitariak (%8,7) izandako gorakadari esker. Eustatek %5,2raino igo du hazkundera, estatuko bisitarien ostatu-gaueen balioa %1,9 hazi delako, baina, batez ere, atzerriko bisitarien ostatu-gaueen balioa %11,5 hazi delako.

23

Horrenbestez, hirugarren urtez jarraian, bidaiarien marka historikoa izan da Bizkaian, guztira, 1.414.460 (Eustat) eta 1.463.852 (INE), urterik urterako hazkundera %5,4ko eta %7,4koak izan direla, hurrenez hurren. Ostatu-gaueetan, berriz, %4,6ko eta %7,3ko igoerak izan dira.

Ibilgailuen matrikulazioa gora doa. 2017ko laugarren hiruhilekoan, ibilgailuen salmentek gorakada handia izan zuten Bizkaian (%14,3) eta, hartara, aurreko hiruhilekoko hazkundera nabarmena (%8,2) berretsi zuten.

2017ko ekitaldian, 22.335 ibilgailu matrikulatu ziren Bizkaian, urterik urterako hazkundera %7,4koa izan zela, hots, 2016koa (%6,1) baino handiagoa eta EAEko hazkunderaren (%7,3) antzekoa, baina estatuan (%9,0) izandakoaren azpikoa.

Zama-ibilgailuen salmentak ere gora egin zuen nabarmen azken hiruhilekoan, urterik urterako hazkundera %10,9koa izan zela. Hirugarren hiruhilekoan, berriz, hazkundera %21,0koa izan zen. 2017ko ekitaldian, zama-ibilgailuen matrikulazioa %13,0 hazi zen (%9,0 2016an) EAEn (%7,3) eta estatuan (%8,7) baino gehiago.

Enpresen inbertsioen bilakaera ona dela eta, Merkataritzaren Estatuko Idazkaritzak (MEI) emandako datuetan ageri denez, Bizkaitik atzerrian egindako ondasun-ekipoen erosketak

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

%6,1 hazi ziren 2017an. Esan beharra dago ehuneko hori 2015ekoa (%12,8) eta 2016koa (%17,2) baino txikiagoa dela, baina nabarmendu behar da lau urtez jarraian hazi egin dela.

Kanpo-eskaria

Kanpoko merkataritza susperraldiaren eragileetako bat izan da. 2017. urtea ona izan da Bizkaiko kanpoko merkataritzarentzat. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasunaren Ministerioaren menpeko Merkataritzaren Estatuko Idazkaritzaren (MEI) datuei jarraiki, Bizkaitik kanpoaldera egindako salmenten bolumena %19,5 hazi zen urritik abendura bitartean, aurreko hiruhilekoetako emaitza onak, %19,6, %13,7 eta %25,9, hurrenez hurren, berretsita.

Kanpo-salmenten bilakaera paregabe hori beraren bi osagarrietan gertatu da, hau da, salmenta energetikoetan (urtetik urterako hazkundera %26,0koa izan da) zein ez-energetikoetan (urtetik urterako hazkundera %17,3koa izan da).

Esportazio ez-energetikoena dugu guztizko salmentetan bolumen handiena duena (%73,6) eta lau hiruhilekotan jarraian izan du hazkundera. Esportazio horien gorakada (%17,3) EAEkoa (%9,6) nahiz estatukoa (%6,6) baino handiagoa izan da. Bizkaitik egindako salmenta ez-energetikoetan, hazi egin dira EBn bertan egindakoak (%15,9), nahiz munduaren gainerako lekuetan egindakoak (%20).

24

2017ko ekitaldiaren amaieran, 9.545,4 milioi euro esportatu dira lurraldetik. Hala, 2016an saldutako 7.985,7 milioi euroko zenbatekoaren aldean, hazkundera nabarmena izan da (%19,5), 2015ean (-%8,0) eta 2016an (-%11,7) izandako beherakadetatik oso urrunekoa.

2017ko ekitaldian, lurraldetik egin ziren esportazio ez-energetikoen guztizkoa 7.322,7 milioi eurokoa izan zen (guztizkoaren %76,7) eta, beraz, %16,1eko hazkundera izan zuten urtetik urtera, azken hiru urteotako beheranzko joera iraulita (-%0,2 2014an, -%1,0 2015ean eta -%5,9 2016an).


Esportazio ez-energetikoen goranzko bilakaeraren arrazoi nagusia dugu EB egindako salmenten bolumena (%15,4) eta munduaren gainerako herrialdeetan egindako salmentena (%17,6%), azkenak garabidean dauden ekonomia behinenetako batzuek bultzatuta.

2017ko ekitaldian, Bizkaitik egindako esportazioei dagokienez, sektore nagusi guztiek hazkunde nabarmena izan zuten: produktu energetikoak (%32,3, %23,3ko pisu erlatiboa izanda), erdi-manufakturak (%14, %30,6ko pisu erlatiboa izanda), eta ekipo-ondasunak (%28,8, %25,9ko pisu erlatiboa izanda). Ondokoen hazkundera garrantzi txikiagokoa izan zen: lehengaiak (%33,0, %1,3ko pisu erlatiboa izanda) automobilgintzako osagaiak (%3,8, %12,6ko pisu erlatiboa izanda) eta kontsumoko manufakturak (%14,7, %1,8ko pisu erlatiboa izanda); beste manufaktura batzuek, ordea, beherakada handia izan zuten (-%55,1, eta %0,4ko pisu erlatiboa izanda), bai eta kontsumo iraunkorrak ere (-%1,3, %0,8ko pisu erlatiboa izanda).

Esportazioen helmuga aintzat hartuta, balio izendatuetan emanda, Bizkaiko esportazioen helmuga nagusiak ondokoak izan ziren: Frantzia (guztizko esportazioen %16,4), %7,2ko hazkundera izanda; Alemania (%11,8) %21,6ko hazkundera izanda; Estatu Batuak (%11,0)

%20,4ko hazkundera izanda; Belgika (%6,4) %22,0ko hazkundera izanda; Erresuma Batua (%5,6), %19,4ko hazkundera izanda; eta Italia (%4,6), %8,2ko hazkundera izanda.

Azpimarratu beharrekoa da Bizkaitik garabidean dauden ekonomia nagusi batzuetara egindako esportazioen hazkunde bikaina, hala nola Mexikora egindakoak (%39,3ko hazkundera, guztizko esportazioen %2,2 direla); Indiara egindakoak (%132,0ko hazkundera, guztizko esportazioen %2,2 direla); Brasilerara egindakoak (%86,8ko hazkundera, guztizko esportazioen %1,5 direla); eta, azkenik, Txinara egindakoak (%46,4ko hazkundera eta guztizko esportazioen %1,2 direla).



Kontsumo eta jardueraren bilakaera onarekin bat etorriz, Bizkaiko inportazioek ere gora egin zuten nabarmen urteko azken hiruhilekokoan (%16,8ko hazkundera urtetik urterakoan), erosketa energetikoen %20,3ko hazkundera eta ez-energetikoen %14,2ko hazkundera izan zutela. 2017ko ekitaldian, erosketa ez-energetikoen %13,7 hazi ziren (2016an, berriz, %3,1 jaitsi ziren), EAEn baino gehiago (%11,5) eta Espainian halako bi (%7,3).

2017ko ekitaldian, muga-zergen taldeei gagozkiela, nabarmentzekoa da ekipo-ondasunen gorakada (%6,1ko hazkundera, %13,1eko pisu erlatiboa izanda), automobilgintzako osagaien gorakada (%6,3ko hazkundera, %2,2ko pisu erlatiboa izanda); erdi-manufakturen gorakada (%17,9ko hazkundera, %25,2ko pisu erlatiboa izanda) eta lehengaien gorakada (%24,0ko hazkundera, %5,0ko pisu erlatiboa izanda).

Lan-merkatua


Xehetasunak, xehetasun, lan-merkatuak bilakaera ona izan du. Ekonomiaren inguruko hiruhileroko kontuen arabera, Bizkaiko ekonomian, arduraldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 472.240koa izan zen 2017ko laugarren hiruhilekoan, hau da, hirugarren hiruhilekoan baino 2.605 lanpostu gehiago egon ziren. Bada, hiruhilekotik hiruhilekora arteko hazkundera %0,6koa izan zen, aurreko hiruhilekoan izandako %0,2ko jaitsiera atzean utzita.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Urtetik urterako balioetan emanda, esan beharra dago lan-merkatua susperraldi garbia erakusten ari dela. Bada, 2016ko laugarren hiruhilekoan 464.044 lanpostu egon ziren; 2017ko urria eta Abendua bitartean, berriz, 472.240 izan ziren, hau da, 8.196 gehiago. Hortaz, lanpostuen kopuruak %1,8 egin du gora urtetik urtera.

EINek egiten duen BAIren arabera, biztanleria aktiboak %1,5 egin du behera 2017ko laugarren hiruhilekoan eta biztanleria landunak %0,1 baino ez du gora egin. Horren ondorioz, langabetsuen kopuruak %11,6 egin du behera, aurreko hiruhilekoan baino 6.900 langabe gutxiago daudela.

Langabezia-tasak puntu bat egin zuen behera aurreko hiruhilekoaren aldean, %12,3raino, hain zuzen ere, eta 2016ko aldi berdinean izan zen %13,8koa baino txikiagoa izan zen. Sexuaren arabera aztertuta, esan dezagun emakumeen langabezia-tasa %11,8koa dela eta gizonena %12,9koa. Aurreko hiruhilekoan, berriz, %13,4koa izan zen kasu bietan.



26

Eustaten BJA delakoari jarraiki, Bizkaiko biztanleria aktiboak %0,2 egin zuen behera urteko azken hiruhilekoan, azken sei hiruhilekoetan etengabe jaitsi dela. Aitzitik, biztanleria landuna nabarmen hazi zen urria eta Abendua bitartean, urtetik urterako %1,2raino, aurreko hiruhilekoan %0,7 beheratu ostean.

Urtetik urterako balioak aintzat hartuta, langabeen kopuruak %9,0 egin zuen behera eta 6.800 langabe gutxiago egon ziren, 2016ko azken hiruhilekoko kopuruarekin alderatuta. Langabezia-tasa %12,8koa izan zen, aurreko hiruhilekoan izandako berdina, baina orain dela urtebete izandako %14,0koa baino apalagoa eta nahikoa parekoa emakumeen (%12,7) eta gizonen (%12,9) artean.

Gizarte Segurantzaren datuei erreparaturik, esan daiteke lan-merkatuaren egoera hobetu dela, baina estatuan baino motelago. Aurreko urteko azken aldiaren aldean, afiliazioen kopurua %1,7 hazi ziren azken hiruhilekoan, hirugarren hiruhilekoan %1,6 igo ostean. Nolanahi ere, EAEkoa (%2,1) eta Espainiakoa (%3,5) baino txikiagoa da.

2017an, batez beste, 461.700 afiliazio izan ziren Bizkaian (454.300 2016an), hau da, urtetik urterako hazkunde %1,6koa izan zen (%1,7koa 2016an), baina EAEkoa (%1,9) eta Estatukoa (%2,9) baino txikiagoa.

SEPEren datuek ere berresten dute lan-merkatuaren hobekuntza; izan ere, Bizkaiko langabeen kopuruak %6,1 egin zuen behera urtetik urterako balioan, urritik abendura bitartean, hain zuzen ere, ekitaldiko lehen hiruhilekoetan izandako jaitsieren ondotik (-%9,4, -%8,4 eta -%6,1). Beherakada hori EAEkoa (-%7,0) eta Estatukoa (-%8,0) baino zerbait txikiagoa da.

%7,5eko jaitsiera egonik, 2017ko ekitaldia ondoz ondoko laugarrena izan dugu langabezia-tasa apaltzen dena, baina jaitsiera euskal ekonomiarena (-%8,6) eta Espainiako ekonomiarena (-%9,3) baino apalagoa izan zen.


2018ko otsaila arteko datuak kontuan hartuta, -%6,8ko jaitsiera izan dela, esan dezakegu Bizkaiko langabeziak beheranzko joera garbia hartu duela baina, nolana ere, Estatuko jaitsiera (-%7,5) baino txikiagoa dela.

Ekonomiaren finantzaketa

Espainiako Bankuak emandako datuen arabera, 2015eko azken hiruhilekoan hasitako Bizkaiko familia eta enpresen zorpetzearen goranzko joera 2017ko hirugarren hiruhilekoan eten zen, zazpi hiruhilekotan jarraian gora egin ostean.

Finantza-erakundeek 2017ko irailaren azken egunera arte emandako kredituak (eskuratutako azken datua) -%3,8 murriztu ziren urtetik urterako balioari dagokionez, EAEn (-%3,1) baino gehiago. Espainiako ekonomian, ordea, apur bat gora egin dute, %0,1, hain zuzen ere, 2010az geroztik etengabe jaitsi eta gero.

Dena dela, urteko balioetan, Bizkaian 2017ko irailera arte eman diren kredituak %2,8 areagotu dira, orain dela urtebete izan zuten gorakadaren (%4,1) ia erdia.



Modu berean, zortzi hiruhilekotan jarraian hazi eta gero, 2017ko uztaila eta iraila bitartean, Bizkaiko gordailuak -%0,7 murriztu dira urtetik urterako balioari dagokionez. Urteko

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

balioak aintzat harturik, gordailuak %2,2 hazi ziren Bizkaian, bai eta EAEn ere (%2,2), hots, estatuan baino gehiago (%1,6).

2017ko urria eta abendua artean, berriro ere egin zuen behera Bizkaian eraturako hipoteken kopuruak, baina horien zenbatekoak gorakada handia izan zuen. Hala, 2017ko laugarren hiruhilekoan, 2.460 hipoteka berri eratu ziren Bizkaian (urtetik urtera %6,6 jaitsi ziren), eta eraketan erabilitako 357 milioi euroko zenbatekoak, ordea, %2,0ko gorakada ekarri zuen urtetik urterako balioari dagokionez.

Abendura arte, metaturako balioak aintzat hartuta, Bizkaiko hipotequen kopuruak %7,6 egin zuen behera urtetik urterako balioari dagokionez, eta emandako zenbatekoa %7,0 murriztu zen, aipaturako balioek hiru urtetan jarraian behera egin ostean. Estatuan, berriz, %7,0ko eta %13,2ko gorakadak izan ziren, hurrenez hurren.

Beste alde batetik, 2017ko ekitaldian, 1.631 merkataritza-sozietate eratu ziren, hots, kopuru horrek %2,3 egin du gora bi urtetan jarraian behera egin ostean. Era berean, ekitaldian formalizatutako kapitala 185,5 milioi eurokoa izan zen eta, beraz, %68,4ko gorakada nabarmena izan zuen, 2016an ere %50,8 gora egin ondoren.

Bizkaian, 2017ko urtarriletik abendura, kapitala handitu zuten sozietateen kopuruak %2,8 egin du behera, baina handitatu kapitalaren zenbatekoa %32,2 hazi da.

Prezioen bilakaera

28

Inflazioa behera doa. Ekitaldiaren hasieran, prezioek gorakada handia izan zuten eta Bizkaiko KPI %3,1 ere handitu zen urtetik urterako balioari dagokionez, petrolioaren prezioaren eraginez, baina hazkundera urtearen barruan apalduz joan da eta, abenduan, %1,0koa izan zen urtetik urterako balioa.

Bestalde, abenduan, KPI osatzen duten produktu guztien prezioak igo ziren Bizkaian, etxeko gauzen eta medikuntzaren alorretan izan ezik –horien kasuan –%0,4 eta –%0,5 jaitsi ziren, hurrenez hurren–; halaber, aisialdiaren eta kulturaren alorrekoak –%0,1 murriztu ziren. Igoerei dagokienez, aldiz, honako alor hauek nabarmendu behar dira: garraioa (%1,8); hezkuntza (%2,1); etxebizitza (%0,9); hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (%1,5); edari alkoholodunak eta tabakoa (%2,1); eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (%1,7).

Eskura dauzkagun azken datuek diotenez, KPIk jaisten jarraituko du. Hala, Bizkaiko KPIren balioa, urtarrilean, %0,4koa izan zen, estatukoa (%0,6) baino txikiagoa.

Epe laburrerako aurreikuspenak

2017ko ekitaldiaren amaieran, Bizkaiko eta EAeko hazkundera parekoak izan ziren. Lurraldeko ekoizpen-jarduerak bilakaera positiboa izan zuen 2017ko ekitaldian, zerbitzuen jarduera onuragarriari eta industriako susperraldiari esker. Horrez gain, kanpoko sektorearen susperraldia ere mesedegarria izan da.

Aurreikuspenen arabera, 2018ko ekitaldian bosgarren urtez jarraian suspertuko da Bizkaiko ekonomia, nahiz eta, segurutik, hazkundera 2017koa baino apalagoa izango den;

izan ere, urtearen erdialdean, “geraldia” jazo liteke, eta EAEko batez bestekoaren parekoa izango litzateke (%2,5).

Lan-merkatuari dagokionez, badirudi enpleguak %1,6 egingo duela gora 2018an eta, horri esker, langabezia-tasak behera egingo du nabarmen.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Ekonomiaren Abagunearen Adierazkarien Laburpena

Urtetik urterako ald%
 Urtetik urterako ald%


	Iturria	Epealdia	Bizkaia		Euskal Herria		Espainia	
			2016	2017	2016	2017	2016	2017
BPG BOLUMINA	Eustat/INE	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	3,4	2,9	3,1	2,9	3,3	3,1
BPG NOMINALA	Eustat/INE	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	3,8	4,0	3,4	3,9	3,6	4,0
EKOIZPENA								
-I.E.I. Orokorra	Eustat/INE	Urt.-Abendua	0,6	3,2	1,8	2,8	1,6	2,9
-I.E.I. Orokorra zuzenduta	Eustat/INE	Urt.-Abendua	0,9	3,4	2,3	3,0	1,8	3,2
-Landunak Guztira	INE	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	2,9	1,6	2,9	0,3	2,7	2,6
-Landunak Guztira	Eustat	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	1,5	0,9	1,2	1,3	--	--
-Gizarte Segurantzako Afiliatuak	G. Segurantza	Urt.-Abendua	1,7	1,6	1,9	1,9	2,9	3,5
INDUSTRIA								
-I.E.I. Ateratze Industriak	Eustat/INE	Urt.-Abendua	-21,8	19,9	-17,4	3,5	-8,4	5,0
-I.E.I. Beste Manufaktura	Eustat/INE	Urt.-Abendua	1,6	2,9	2,7	2,9	2,3	3,1
-I.E.I. E. Elek., Gasa eta Ura	Eustat/INE	Urt.-Abendua	-7,1	5,6	-5,2	2,5	-2,2	1,8
-Landunak Industrian	INE	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	24,9	-1,4	9,7	3,2	1,6	5,0
-Landunak Industrian	Eustat	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	2,3	10,0	2,1	4,6	--	--
-E. Elek. Kons. Industrian	Iberdrola	Urt.-Abendua	-12,7	8,7	-9,5	4,8	--	--
-E. Elek. Kons. Ind. Sid. Gabe	Iberdrola	Urt.-Abendua	-5,5	4,6	-2,0	3,8	--	--
ERAIKINTZA								
-Landunak Eraikintza	INE	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	5,7	-10,6	2,8	-2,5	0,0	5,1
-Landunak Eraikintza	Eustat	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	2,4	-3,2	1,2	0,7	--	--
-En. Elek. Knts. Eraikintzan	Iberdrola	Urt.-Abendua	-12,0	-11,5	-9,0	-6,3	--	--
ZERBITZUEN SEKTOREA								
-Bidaia Mugimendua	INE	Urt.-Abendua	6,8	7,4	5,8	5,4	7,1	3,7
-Bidaia Mugimendua	Eustat	Urt.-Abendua	7,4	5,4	7,6	3,6	--	--
-Gauak	INE	Urt.-Abendua	4,5	7,3	5,3	6,3	7,4	2,7
-Gauak	Eustat	Urt.-Abendua	8,6	4,6	8,9	2,6	--	--
-Landunak Zerbitzuetan	INE	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	-2,0	3,6	0,8	-0,4	2,9	1,9
-Landunak Zerbitzuetan	Eustat	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	1,2	-0,6	1,0	0,4	--	--
-En. Elek. Knts. Zerbitzuetan	Iberdrola	Urt.-Abendua	-0,4	-1,3	0,1	-0,8	--	--
LAN MERKATUA								
-Langabezia Tasa	INE	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	-11,1	-10,6	-14,7	-10,2	-11,0	-12,3
-Langabezia Tasa	Eustat	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	-10,7	-15,1	-12,6	-16,3	--	--
-Erregistratutako Langabezia	SEPE	Urt.-Abendua	-8,4	-7,5	-8,8	-8,6	-8,6	-9,3
-Erregistratutako Kolokazioak	SEPE	Urt.-Abendua	8,9	1,5	7,7	3,1	7,8	7,0
BARRU ESKARIA								
-I.E.I. Kontsumo O.	Eustat/INE	Urt.-Abendua	--	--	0,1	2,6	1,8	0,9
-Autoen Matrikulazioa	D.G. Tráfico	Urt.-Abendua	6,1	7,4	4,9	7,3	12,4	9,0
-E. Elek. Knts. Etxeetan	Iberdrola	Urt.-Abendua	-3,7	-2,4	-3,1	-1,7	--	--
-I.E.I. Kontsumo O.	Eustat/INE	Urt.-Abendua	--	--	8,7	-0,1	4,0	4,1
-Garraio-Ibilgailuen matrik.	D.G. Tráfico	Urt.-Abendua	9,0	13,0	7,0	7,3	8,0	8,7
KANPOKO ESKARIA								
Esportazioak Guztira	S.E.Comercio	Urt.-Abendua	-11,7	19,5	-1,6	10,5	1,7	8,9
-Esp. Guztira ez energetikoak	S.E.Comercio	Urt.-Abendua	-5,9	16,1	1,6	8,7	1,5	6,8
-Esp. G.E.E. Europako-Batas.	S.E.Comercio	Urt.-Abendua	-3,6	15,4	2,5	6,7	5,1	6,2
-Esp. G.E.E. munduko gainer.	S.E.Comercio	Urt.-Abendua	-10,1	17,6	-0,3	12,6	-5,1	7,9
Inportazioak Guztira	S.E.Comercio	Urt.-Abendua	-15,4	29,5	-8,0	20,6	-0,4	10,5
-Inp. Guztira ez energetikoak	S.E.Comercio	Urt.-Abendua	-3,1	13,7	0,2	11,5	3,4	7,3
-Inp. G.E.E. Europako-Batas.	S.E.Comercio	Urt.-Abendua	-6,2	11,2	0,3	9,9	2,9	4,9
-Inp. G.E.E. munduko gainer.	S.E.Comercio	Urt.-Abendua	2,5	17,8	-0,0	15,7	4,1	11,2
PREZIO ETA SOLDATAK								
-KPI	INE	Urt.-Abendua	0,1	2,0	0,0	2,0	-0,2	2,0
-PIIA	INE	Urt.-Abendua	--	--	-2,5	5,5	-3,1	4,4
-Koste laboral hiru hil. Enk.	INE	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	--	--	-0,9	0,5	-0,4	0,2
-Itundutako soldata-igoera	Mº de Empleo	Urt.-Abendua	1,2	1,5	1,1	1,5	1,1	1,4
EKONOMIAREN FINANTZAKETA								
-Kredituak S. Egoiliarretan	Bco. España	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	5,0	d.g.	0,8	d.g.	-5,6	d.g.
-Gordailuak S. Egoiliarretan	Bco. España	(I+II+III+IV) Hiruhilekoa	4,6	d.g.	3,4	d.g.	0,3	d.g.

Daturik gabe=d.g.


Bizkaiko Abagune Ekonomikoaren Laburpen Grafikoa

Ekoizpen Jarduera

IEI eta Energiaren Elektrokoaren konts.
4 Hiruhileko batez. mugikorraren urtetik urterako ald.%




Eraikuntzaren Adierazkariak




Lan Merkatua

Landunak




Langabezi Tasa




31

Barruko Eskaria eta Kanpokoa

Barruko Eskaria



Kanpo Eskaria



ZERGA ABAGUNEA

Espainiako Bankuko Hiruhileko Balantzeen Zentralaren (HBZ) arabera, 2017ko lehenengo hiru hiruhilekoetan zehar jarduerak hobera egin zuen, baina 2016an baino neurritsuago.

2017ko irailera arte, enpresa-laginaren multzoko balio erantsi gordina (BEGd) urte arteko %0,8 hazi zen 2016ko aldi berarekin alderatuz (orduan %2,7ko gehikuntza egon zen). Garapen horretan eragina izan du zenbait konpainia handiren joera kaltegarriak, zeinak laginean pisu handia izan duen; joera horiek energiaren sektorearekin lotuta daude, non merkataritza-tarteak estutu egin ziren ekoizpen-kostuek gora egin zutelako. Adar hori salbuetsiz, BEGd %4,3 hazi zen, eta 2016an %2,7.

Ekoizpen-jardueraren garapen hori barne-eskariak dinamismo handiagoa zuen testuinguruan gertatu zen, eta guztizkoaren aurrean indarra hartu zuten Espainian egindako salmentek eta erosketek (%79,1 eta %70,3 hurrenez hurren), 2016ko aldi berean baino hamarren batzuk gehiago.

Langileen gastuak urte arteko %2,0 gehitu ziren 2017ko lehenengo hiru hiruhilekoetan, eta horren arrazoi nagusia langileen batez besteko kopuruan %2,2ko gehikuntza izan zuen enpleguaren garapen positiboa izan zen (aurreko urtekoa %1,5koa izan zen), baita batez besteko ordainketak aldaketa neurritsuen joeran mantendu direla ere, %0,2ko beherakada arina izan zutelarik (orain dela urtebete %0,4koa izan zen).

32

BEGd-ren eta langileen gastuen garapenaren ondorioz, 2017ko lehenengo bederatzi hilabeteetan HBZren laginaren agregatuaren emaitza ekonomiko gordinak (EEG) urte arteko %0,4ko beherakada arina izango du aurreko urtean erregistratutako %4,4ko aurrerapenaren aurrean. BEGd-ren kasuan bezala, soberakin horri asko eragin dio sektore energetikoan batutako zenbait enpresen errentek izan duten garapen negatibo handiak. Laginaren adar hori salbuetsiz, EEG %6,9 hazi zen, 2016ko aldi bereko %4,5en gainera.

Irailera arte diru-sarrera eta gastu ez ohikoen garapenak eragin negatiboak izan zituen azken emaitzan, izan ere, 2016an zenbait enpresek gainbalio altuak eskuratu zituzten salmenta-eragiketa eta narriatze-lehengoratzetatik, baina 2017an balio zuzenketengatik gastuak erregistratu dira izaera finantzarioa duten aktiboei lotutako kasu guztietan. Bukatzeko, finantza-zorrak eta -kargak gutxitzen jarraitu dute.

Hazkunde izenduna eta diru-bilketaren garapena

INEren arabera ohiko prezioetan baloratutako BPGd urte arteko %4,3 hazi zen 2017ko laugarren hiruhilekoan, hirugarren hiruhilekoan erregistratutakoa (%4,1) baino bi hamarren gehiago, eta hala, ebaluatu zen ekonomiaren deflatore implizituak %1,2ko gehikuntza erakusten duela, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago.


2017ko diru-bilketaren garapena positiboa izan da zuzeneko zergapetzeak eta zeharkakoak ibilbide ona izan dutelako, nahiz eta intentsitatea ezberdina izan den. Zuzenekoan eragina izan du beste batzuen artean aldeko egoerak. Aldeko egoera horren ondorioz enplegu gehiago sortzen da eta enpresa-onurak gehitu egin dira. Horren ondorioz, lan-etekinen eta zatikatutako ordainketen ondoriozko atxikipenak gehitu egin dira, bai enpresa indibidualenak, baita sozietateenak ere.

Gainera, EAEko tributu kontzertatuetakotako diru-bilketak gora egin du 2017/05/17ko Itun Ekonomikoaren Batzorde Mistoak eta 2017/10/11ko Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak hartutako erabakiei esker. Horien ondorioz, guztiz zenbatu ahal izan dira aurreko urteetan 2011tik 2016ra arteko ekitaldietako kupoak kalkulatzean egon ziren desadostasunen ondorioz atxikitako BEZaren doikuntzagatiko diru-sarrerak.

Hala ere, oraindik ere nolabaiteko ahultasuna dago zenbait eremu sektorial eta pertsonaletan, eta hori areagotu egiten dute kreditu- eta finantza-zorroztasunek. Ondorioz, Zerga Administrazioek finantza subsidiarioritasun izaera betetzen jarraitzen dute, ahal den neurrian zenbait eragile ekonomikorik sufritzen dituzten likidezia-arazoak arintzeko zerga-zorrak atzeratzea erraztuz.

Testuinguru horretan, 2017ko EAEko tributu itunduetako diru-bilketa gordina 17.922,2 milioi eurokoa izan zen, urte arteko %9,1ko aurrerapenarekin. 2016an kontabilizatutako %2,6ko gehikuntza 16.423,1 milioi eurokoa izan zen.

Bizkaiko 2017ko tributu itunduengatiko diru-sarrera gordinak 10.180,6 milioi eurokoak izan ziren (EAEren %56,8), eta 2016an bildutako 9.368,9ko kopuruaren aurrean urte arteko %8,7ko gorakada nabarmena gertatu zen (2016an %2,3), baina Arabaren (%10,0) eta Gipuzkoaren (%9,6) atzetik.



2017an Foru Ogasunek egindako itzulketak %0,7 jaitsi ziren EAEn 2016an izandako %2,4ko hazkundearen ondoren. Hori horrela gertatu zen Bizkaian %4,3ko aurrerakuntza (2016an %0,9) eta Araban eta Gipuzkoan beherakadak egon zirelako (Arabaren %7,2koa eta 2016an %1,6koa eta Gipuzkoan %4,3koa eta 2016an %6,7koa).

Horrekin guztiarekin, 2017an EAEko tributu itunduengatiko diru-bilketa garbia 14.473,9 milioi eurokoa izan zen, %11,8ko hazkunde garrantzitsuarekin (2016an %2,7); Bizkaian 8.461,4 milioi eurokoa izan zen %9,6ko hazkundearekin (2016an %2,6). Horren ondorioz, Bizkaiak %107,3ko aurrekontu-aurreikuspenarekin gainditu du ekitaldia.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Hala ere, estatuarekiko doikuntzak kanpo uztean, EAEn (2.016,5 milioi) kudeaketa propioko diru-bilketa garbia (guztizkoaren %86,1) %5,0 igo da diru-bilketa gordinak sustatuta; azken hori %4,1 hazi da (urtebete aurretik %2,3), eta aurrerapen neurritsuena itzulketen %0,5ekoa izan da (%0,4koa 2016an).

Bizkaian, kudeaketa propioko tributu itunduengatiko diru-sarrera garbiak ekitaldian 7.439,9 milioi eurokoak izan ziren, 2016an baino 271,4 milioi gehiago, eta urte arteko gehikuntza %3,8koa izan zen, aurreko urteko 2,8 baino puntu bat gehiago; hori guztia diru-bilketa gordinak (%4,0) eta itzulketek (%5,1) aurrera egin zutelako gertatu zen.

Hala ere, eta ekarpen-koefizienteen arabera Energia Elektrikoa Ekoiztearen gaineko Zergaren, BEZaren eta Fabrikazioaren Zerga Berezien diru-bilketan aldaketak egin ondoren eta lurraldeen arteko transferentziak gauzatuta, Bizkaiko 2017ko kudeaketa propioagatiko diru-sarrera garbiak 6.478,9 milioi eurokoak dira (2016an baino 316,1 milioi gehiago), eta urte arteko gehikuntza %5,1ekoa izan da (2016an %3,3koa).

Kapituluen arabera, eta kudeaketa propioaren barnean, EAeko 2017ko diru-bilketa gertatu da zuzeneko zergapetzea %7,2 hazi delako eta zeharkakoa %2,9, eta Bizkaian lurralde historikoen arteko doikuntza egin aurretik, zuzeneko zergapetzea %7,6 gehitu da eta zeharkakoa %0,8.

34

Argitaratutako azken datuen arabera, urtarrila eta azaroa bitartean estatuko zerga diru-bilketa (lurraldeko administrazioei egotzi daitekeen parte-hartzea barne) 180.335 milioioiko izan da, 2016ko aldi berean baino %4,1 gehiago, eta horren arrazoia zuzeneko zergapetzea %6,5 gehitzea eta zeharkakoa ere %2,0 gehitzea izan da.

Zuzeneko zergapetzearen garapena

2017an EAeko zerga zuzenen diru-bilketa oso positiboa izan zen, nagusiki PFEZren (Lan atxikipenak eta zatikatutako ordainketak) eta Sozietateen gaineko Zergaren diru-sarrerak joera ona izan zutelako (horiek dira zerga-figura garrantzitsuenak).

EAeko zergapetze zuzen gordinak %5,7ko igoera izan du 2017an, eta 2016an %2,1ekoa izan zuen. Bizkaiko gehikuntza indartsuagoa izan da eta %7,1era arte iritsi da (2016an %1,4), Araban (%3,9) eta Gipuzkoan (%4,1) baino gehiago.


EAEn zerga zuzenengatik egindako itzulketak %1,6 jaitsi ziren 2017an (2016an %4,3), Bizkaian %5,2ko gehikuntza egon zelako (2016an %7,9koa) eta Araban eta Gipuzkoan jaitsierak egon zirelako (%19,6 eta %5,2 hurrenez hurren).

Hala, EAeko diru-bilketa zuzen garbia %7,2 hazi da lurralde historikoetan gertatutako aurrerakuntzaren ondorioz (Bizkaian %7,4, Araban %9,0 eta Gipuzkoan %6,1).

Bizkaiko zergapetze zuzenean garrantzitsuak izan dira diru-bilketa handia izan dutelako lan-atxikipenak, ekitaldian lan-merkatuaren berreskuratze geldo baina etengabearekin batera %3,1 igo direnak (2016an %2,4), baina Arabakoa (%4,8) eta Gipuzkoakoa baino (%4,2) baxuagoak izan dira.

Bizkaian Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrera egindako afiliazioak nolabait irregularrak izan diren arren, ekitaldian ibilbide positiboa izan dute. Hala, urtean %2,3ko hazkundea izan dute 2016ko %2,1koa gaindituz, baina EAeko (%2,7) baino baxuagoa, eta estatuan izandakotik (%4,5) urrun.

Bere aldetik, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera, 2017an Bizkaian hitzartutako batez besteko soldata-gehikuntza %1,5ekoa izan da (%1,2 urtebete aurretik), eta beraz, atxikipenei lotutako soldata-masa %3,8 inguru igo zen Bizkaian, lan-atxikipenen %3,1ko aurrerakuntzarekin.



Kapital Higarriaren atxikipenak 2017an igotzeko joera izan dute 2016an etengabe atzeratzen joan ondoren, %9,2ko diru-bilketa gehitu egin baitzen 2016ko %11,3ko jaitsieraren ondoren.

2017an Ondare Irabaziak ere berreskuratu egin dira, %66,1ko gehikuntza garrantzitsua izan dutelarik, 2016an erregistratutako %29,7ko kopuruaren aldean.

Ekitaldian zehar egonkortu egin zen Sozietateen gaineko Zergaren garapena konturako ordainketen sistema aldatzearen ondorioz. Sistema horrek Defizit publikoa murrizteari bideratutako tributu-neurriak onartzen dituen irailaren 30eko 2/2016 Errege Dekretu-legearen arabide komunaren barne dauden erakundeei eragiten die.

Hala, Bizkaian 2017an Sozietateen gaineko Zergaren bilketa termino gordinetan %11,0 hazi zen (2016an %2,6), eta itzulketak %17,2 hazi ziren, orain dela urte bete baino gutxiago (%27,0). Horren ondorioz, termino garbietan %8,7ko gehikuntza egon da, eta 2016an %4,3 erori zen.

Zeharkako zergapetzearen garapena

2017ko ekitaldian EAEn kudeaketa propioagatiko zergapetze zeharkako gordina %2,8 hazi zen, eta egindako itzulketak %2,2 gehitu zirenez, termino garbietan %2,9ko aurrerakuntza gertatu zen, 2016ko %2,3koa baino handiagoa.

Bizkaiari dagokionez, 2017ko kudeaketa propioagatiko diru-bilketa zeharkako gordina %1,5 gehitu da (orain dela urtebetekoa baino baxuagoa, %2,6koa izan baitzen), eta egindako itzulketak %5,1 aurreratu direnez, termino garbietan %0,8ko gehikuntza eskasa gertatu da, 2016an izandako %1,9ren erdia hain zuzen ere.


Aurreko txostenetan adierazi zen bezala, Bizkaian 2017an zergapetze zeharkakoak emaitza txarrak izan ditu nagusiki BEZ ahul egon delako, nahiz eta urtean zehar azken kontsumoaren gastuan gorakada izan duen.

Hala, Bizkaiko BEZagatiko diru-bilketa gordinak (zeharkako diru-bilketa gordin osoaren %68,6) behera egin zuen %0,1, besteak beste zenbait sozietateek egoera ez ohikoak izan zituztelako. Gainera, Bizkaitik egindako esportazioek nabarmenki gora egin dutenez ekitaldian zehar, egindako itzulketak nabarmenki sustatu dira (%5,0), eta horren ondorioz, kudeaketa propioan BEZagatiko diru-bilketa garbiak %1,6 egin du behera 2016an %0,5eko atzerakuntza izan ondoren; bildutako kopurua 39,1 milioi euro gutxiagokoa izan da.

36

Hala ere, Foru Aldundien artean BEZ doitu ondoren (Bizkaiak 495,9 milioi euro ordaindu ditu 2017an, 2016an ordaindutako 579,2 milioien azpitik urte arteko %14,4ko jaitsierarekin), BEZagatiko diru-bilketa garbia %2,4 hazi da, 2016an izandako %1,1 baino gehiago hain zuzen ere.

Kudeaketa propioko zerga berezien bilketa Bizkaian 2017an ekitaldian %4,7 hazi zen (2016an %6,3), nagusiki Hidrokarburoen gaineko zerga bereziak %7,4ko gehikuntza izan zuelako, gainerakoek, Garagardoarenak izan ezik (diru-bilketa txikia izan zuenak), balio negatiboak izan baitzituzten.



IEDMTra (turismoak eta motozikletak) atxikitako ibilgailuen matrikulazioak gora egiten jarraitu du erritmo onean aurreko ekitaldian, eta hala, %5,3 igo da (2016an %6,7). Horren

ondorioz, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren diru-bilketak oso garapen positiboa izan du.

Hala, Bizkaian 2017an IEDMTengatiko diru-bilketak %24,4 egin zuen gora, 2016ko %4,1tik oso urruti. Tasa bien arteko ezberdintasun handia ikusirik, arrazoizkoa da pentsatzea IEDMTagatiko diru-bilketak aurrerapen nabaria izan duela ez bakarrik zerga horri atxikitako ibilgailuen matrikulazioak gora egin duelako, baizik eta zergapetze-oinarriak gehitu egin direlako, matrikulatutako ibilgailuen prezio altuagoetatik eratorrita (gama altuagoak); hori guztia familientzat eskuragarri dagoen errenta gehitu egin delako.

Zergapetze zeharkakoaren figuren barne, nabarmendu egin behar da Ondare Eskualdaketan gaineko Zergaren diru-bilketa, eratorritako %15,0 hazi dena, besteak beste bigarren eskuko higiezin merkatuko transakzioak berriz ere aktibatu egin direlako.

Epe motzerako aurreikuspenak

Gaur egungo aurreikuspenen arabera, 2018an zehar jarduera ekonomikoak sendotzen jarraituko du, nahiz eta 2017ko erritmoa baino motelago, eta 2017ko antzeko inflazioa (%1,5) gertatuko da. Horri esker, kontzertatutako tributuengatiko diru-bilketak gorako joeran jarraituko du.

Lurralde historikoen 2018rako diru-sarreraren aurrekontuen arabera, ezohiko diru-sarrerarik ez da egongo, eta beraz, aurreikusitako gehikuntzak 2017an lortutakoak baino neurritsuagoak izango dira.

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Zerga Abagunearen Adierazkarien Laburpena

Urtetik urterako ald.% /urtarrila-abendua

Adierazkariak (datu osoa)	Bizkaia		Ara./Álav.+Gipuzkoa		Lurralde Erkidea*	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Lanaren Etekinen Atxik.	2,3	2,8	3,0	4,2	0,5	3,2
Kapitalaren Etekinen eta Ondare-irabazien Atxik.	-8,6	15,1	-25,3	14,9	-11,0	2,5
Zuzeneko Zergak	1,8	5,8	2,6	4,0	1,8	6,5
BEZ. Kudeaketa Propioa / Barruko Eragiketak	2,4	0,2	2,6	6,5	1,1	1,4
Ondare Eskualdaketak eta Egintza Jr. Dokumen.	11,3	9,0	9,4	19,3	d.g	d.g
Zenbat Garraibide gaineko Zerga	2,2	24,9	11,0	18,4	d.g	d.g
Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak. Kude. Propioa	6,2	4,2	-0,6	-3,5	3,1	2,7
Zeharkako Zergak. Kudeaketa Propioa	3,6	1,5	2,3	5,5	4,1	2,0
Zergak Itunduak. Kudeaketa Propioa	2,9	3,4	2,3	4,6	2,8	4,1
Egindako diru-itzulketak. Kudeaketa Propioa	-1,1	5,1	0,3	-3,6	d.g	d.g

* Lurralde Erkidean, barruko eragiketen BEZa izan ezik, adierazleak zenbateko garbietetan adierazi dira

* Lurralde Erkidegoko datuak azaroak dira

Ohar Metodologikoa

Aurkakoa adierazten ez den bitartean, zerga-adierazleak zenbateko osoetan adierazi dira, eta kudeaketa propioari dagozkio. Kudeaketa propioa lurralde-eremu bakoitzean eskuratutako diru-sarrerak dira, betiere finantza-akordioetan oinarritutako lurraldeen arteko banaketak egin aurretik.



Beraz, Koeffiziente Horizontalei begira egindako BEZaren barruko berratzikipena eta Zbak nahiz modu berean banatuta Estatuarekin egindako

Doikuntzak ere salbuetsita geratuko dira.



Adierazleen aukera horren ideia nagusia hazkunde izendatuan eta Itun Ekonomikoaren konexio-puntuetan oinarritzen den zerga-oinarriaren euskarriaren jarraipena garatzea da.

Ekonomi Ihardueraren Fisko Adierazkarien Laburpen Grafikoa

Zerga Diru-sarrera Orokorrak





Zuzeneko zergen Diru-sarrerak



39

Zeharkako zergen Diru-sarrerak



Datu osoak

Abagune Ekonomiko eta Fiskala

Bizkaiko Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Saila
Idazkaritza Orokor Teknikoa
Ekonomi Aholkularitza
Basurtuko Kaputxinoen, 2 eta 4
48013 Bilbo

2018 Lehen Hiruhilekoa